



# SarAgune

Teknologia berrien giza eta elkarte erabilpen  
baten aldeko ekimena


Sistematizazioaren Abentura Sartu Federazioan



A stylized mouse cursor icon with a grey body, a white button, and a thin grey cord. It is positioned above the letter 'e' in the title.

# Saragune

Teknologia berrien giza eta elkarte erabilpen  
baten aldeko ekimena

A large, stylized, light grey illustration of a car steering wheel, positioned in the lower half of the page. The wheel has a central hub and a rim with a triangular cutout. The background features a large, curved grey line that arches over the text and a series of diagonal grey lines in the top left corner.

Finantzatu:



Argitaratzailea:

Federación Sartu

Bailén 5, sótano izquierda

48003 Bilbao

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Diseinu eta maketazioa: Marra S.L.



# Aurkibidea

<b>0. Aurkezpena</b>	7
<b>1. Esperientziaren testuingurua: Gasteizko Alde Zaharra</b>	9
<b>2. Saregune: teknologia berrien giza eta elkarte erabilpen baten aldeko ekimena</b>	11
2.1. Prestakuntza eta Enplegurako programak	11
2.2. Oinarrizko Saregune Ikastaroak eta Hezigune Ikastaro Espezializatuak	13
<b>3. Sistematizazio-prozesua: zer sistematizatu eta zertarako</b>	15
3.1. Xedearen definizioa	15
3.2. Helburuaren definizioa	16
3.3. Ardatzaren definizioa	16
<b>4. Definizio metodologikoa</b>	19
<b>5. Esperientzia berreskuratzea eta analisi kritikoa</b>	21
5.1. Hasiara puntua: 2003	21
5.2. Lehenengo mugarría: lehenengo prestakuntza eta enplegu planaren kontratazioa (2004)	24
5.3. Bigarren mugarría: hezigune martxan jartzea (2005)	27

5.4. Hirugarren mugarría: funtzioak bereiztea (2006)	31
5.5. Laugarren mugarría: koordinazio-taldea berregiturazea (2006)	33
5.6. Bosgarren mugarría: koordinazio-taldea berregituratzea (2007)	35
5.7. Seigarren mugarría: Saregunea 2.0 martxan jartzea (2008)	35
<b>6. Mugarrien mapa</b>	39
<b>7. Kronograma</b>	41
<b>8. Esperientzia ondarunen ikuspegitik</b>	43
8.1. Sareagunearekiko lehen harremana	44
8.2. Saregunearekiko nire esperientzia. Zertarako erabiltzen dut?	49
8.3. Sareguneak pertsonarengan duen eragina	53
8.4. Sareguneak auzoan izan duen eragina	56
8.5. Aniztasuna	58
8.6. Hobetzeko ideiak	61
<b>9. Ondorioak</b>	65
9.1. Zerbitzuaren hasiera	65
9.2. Lan-taldea	66
9.3. Kanpo-harremanak	66
9.4. Teknologiaren erabilera	67
9.5. Prestakuntza eta enplegu-programak	68
9.6. Auzoa	68
9.7. Hizkuntza-normalizazioa	69
9.8. Lokala eta kanpo-itxura	69



## **Eskerrak**

Eskerrak eman nahi genizkieke hurrengo pertsona eta erakundeei:

- **Sartu Federazioari**, bereziki Sartu Araba elkartearen parte hartzen dugun guztioi. Eskerrik asko lagunak, zuen laguntza eta animoarengatik eta gu ulertzeagatik.
- **Sareguneren erabiltzaileei**. Garrantzitsuenak zarete, eta hau dena gogo handiz bultzatzen duzue.
- **Conecta sareari eta Esplai fundazioari** Saregune martxan jartzeko laguntza emateagatik.
- Saregunen parte hartu duten pertsona guztiei, multimedia dinamizatzaileei eta Koordinatzaileei. Hemendik igarotzean utzitakoaren eta egindako ekarpenaren emaitza gara.

### **Koordinatzaileak**

Javier Lobato, Ainhoa Garagalza, Raul Villamor, Jose Antonio Baz, Vicente Carrasco, Esti Caceres, Fermin S. López, Rubén Ruiz de Gauna, Roger Martin, Ainara Perez eta Patricia Saratxo.

### **Multimedia teknikariak**

- **2003-2004 urtea:** Dalia, Álvaro, David, Jon, Arantza, Hatim, Layla, Wendy Tatiana.

- **2005-2006 urtea:** Elena, Nuria, Jaime, Malte, Assia, M<sup>a</sup> Mar, Ibai, Beñat, Miren Begoña, Nilton.
- **2007 urtea:** Zuriñe, Lidia, Elisa, Iñaki, Izaskun, Nardi, Jon, Aitor, Jorge, Simon.
- **2008-2009 urtea:** Marta, M<sup>a</sup> Cecilia, Joseba, Miriam, Nicoleta, Raúl, German, Iñaki, Adnan, Cesar Augusto.

### **Dinamizatzaileak**

- **2003-2004 urtea:** Egoitz, Nora, Tatiana, Ame, Uxue, Leticia, Aitziber, Iraitz, Marleny, Agurtzane.
- **2005-2006 urtea:** Ander, Amagoia, Sandra, Noelia, Iratxe, Oliver, Fátima, Ainara, Milagros, Rachid.
- **2006-2007 urtea:** Abdenour, Viliya, Souleymane, Óscar, Tarik, Estibaliz, Pilar, Agustina, Raúl, Sara.
- **2007-2008 urtea:** Maria Liliana, Inti, Asier, Alex, Irina, Ronald, Ahmed, Alvaro, Tarek, Nadifa.
- **2008-2009 urtea:** Hafida, William, Raquel, Josune, Claudia, Lahouaria, Iñigo, M<sup>a</sup> Mar.
- **2009 urtea:** Saliha, Elvira M<sup>a</sup> Jose, Jackeline, Tatiana, Rakel, Cristina, Jaime Alejandro, Alexander, Douglas Henrique, Alberto, Begoña.

Azkenean, atsegin handiz aipatu nahi ditugu finantzatu diguten erakunde guztiak:

- Justicia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Vitoria-Gazteizko Udala.

Zuen laguntzarik gabe Saregune ez bailitzateke posible izando. Espero dugu zuen nlaguntza izatea erronka berriak gure gain nhartzeko eta behar berriak betetzeko.



## 0. Aurkezpena

Honako txostenak Sartu Alava elkarteak, Gasteizko Alde Zaharrean, 2004 urteaz geroztik garatutako esperientziak sistematizatzea du helburu. Proiektu horri **Saregune** izena eman zaio.

Aipatu, Sartu Federazioaren Gizarte Ahokularitzatik dinamizaturik, sistematizazioa proiektu zabalago baten barnean dago Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak subentzionaturik; bertan, Sartu Federazioak bere jardura-eremu geografiko bakoitzean garatutako esperientzia guztien artean lau sistematizatu ditugu. Esperientzia horiek aukeratu ditugu, gure erakundeak azken hogeita urteotan burutu dituen jardueren artean esanguratsuenak direlako. Honakoak dira:

- Zabaltzen (Durango): *Laguntza eta Gizarteratze Zerbitzua.*
- Gaztaroa (Bilbao): *Keima Animazioa S.M.*
- Erroak (Donostia): *Kontratazioaren jarraipen zerbitzua.*
- Sartu Álava (Gasteiz): *Saregune.*

Lau esperientzia horiek sistematizatuta, zera lortu nahi dugu:

- Gure eguneroko praktika modu bateratu eta partekatuan berrikustea.
- Esperientzia bizi izan dutenen jabetzea.
- Ikaskuntza berria.
- Proposamen eta agenda berrietarako ildoak.
- Ezagutza berria eta partekatua sortzea.

Izan ere, jakintza berri honen sormena Sartu Federazioaren Ikuspegiarekin bat dator:

Gizarteratze gaietan erreferente izatea, bai gizarte desabantaila egoeran dauden pertsonentzat, bai helburu hori lortu nahi duten gainerako eragile guztientzat.

Eta elkarte bat:

- Inguruko beste eragile batzuekin sarean lan egiten duena.
- Ezagutza sortu eta banatzen duena.
- Alternatiba berritzaileak bilatu eta proposatzen dituena.

Sistematizazioaren abenturak asmo jakineko bide eta ibilbide berriei ekitea dakar; hala ere, ezin dezakegu ziur jakin zeintzuk izango diren ibilbide horiek, ez eta bidean agertuko diren zalantzak edota erronkak zeintzuk diren ere. Aipatu abentura edota ibilbide hori, hausnarketarako eta burututako lanaren ikuspegi kritikoa izango delakoan gauzatuko dugu, eta aldi berean, gure eguneroko egitekoa hobetzera zuzenduriko elementua izango delakoan.

# 1. Esperientziaren testuingurua: Gasteizko Alde Zaharra

Saregune tele-zentroa Gasteizko Alde Zaharrean dago kokatuta. Auzoak erdi aroko egitura mantendu du, almendra itxura ezagun hori alegia, eta muino baten gainean eta haren hegaletan kokatuta dago. XVIII. mendetik aurrera, hiriaren erradioa zabaltzen joan zen, muino hori inguratzen duten lautadetan zehar.

Alde Zaharra, gaur egun, biztanleak galtze bidean dago, apurka-apurka. 2004an, 10.646 lagun bizi ziren bertan; 2008an, ordea, 9.824era murriztu da kopuru hori<sup>1</sup>. Degradatzeko arrisku-maila handiena duen auzoetariko bat da Gasteizen; izan ere, bertan daude egoera sozial eta ekonomiko zailenak, kopuruari dagokionez. Azken urteetan, merkataritzak eta zerbitzuek gain-behera egin dutela sumatu da. Gaur egun, Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsona-kopurua eta gizarte zerbitzuak erabiltzen dituztenena bikoiztu egin da, hiriko gainerako eremuekin alderatuz gero. Era berean, etorkinak bertan pilatzen ari dira poliki-poliki, eta gaur egun erroldatutako auzotarren %17a osatzen dute. Gainera, beste arazo batzuk ere baditu, hala nola, langabezia, etxebizitza, espazio publiko nahiz zerbitzurik eza eta abar. Horren ondorioz, erakargarritasuna galdu du auzoak, etxebizitza nahiz merkataritzaren ikuspegitik.

---

<sup>1</sup> Gasteizko Udalaren 2008ko Urtekari Estatistikotik ateratako datuak. Hemen duzu eskuragarri: [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org).

Bestalde, instituzioen esku-hartze proposamenek merkataritza indarberritzea eta ondare historiko aberatsa baliabide turistiko gisa berreskuratzea dute oinarri; horregatik, bigarren mailara baztertu dituzte arazo sozialak, eta ez dira aski izan gizarte-bizitza suspertzeko.

Hori guztia gutxi balitz, gizarte-ehunak berezkoak dituen zailtasunak ere gehitu behar ditugu, barneko lankidetzeta eta koordinazioari dagokionez. Ondorioz, gizarte ingurune ahul batekin egiten dugu topo, non auzoko elkar-bizitza tradizional, aberats eta aktiboak indarra galtzen duen.

## 2. Saregune: teknologia berrien giza eta elkarte erabilpen baten aldeko ekimena

Testuinguru horretan sortu zen Saregune. Arrail digitala haustea interesgune gisa hartzen duen proiektua izan nahi dugu, hau da, Informazio eta Komunikazio Teknologia (TIC) berriak eskuratu eta erabiltzeko orduan sortzen diren gizarte-desberdintasunak jorratu nahi ditugu. Horren bidez, berdintasun-maila handiagoa lortu nahi dugu hainbat ikuspegitik: kultura artekoa, auzotarren artekoa, elkarten artekoa, kultura, hezkuntza, harremanak eta lankidetzak. Zentzu horretan, teknologia berriak erabili eta eskaintzea, baliabide egokia da desberdintasun horiei guztiei aurre egin eta gizarte-aldaketa planteatzeko.

### 2.1. Prestakuntza eta Enplegurako programak

Zentroaren jarduera PEF<sup>2</sup> (Prestakuntza-Enplegu Programak) esaten zaien programen garapenean oinarritzen da. **Urtero, auzoko 20 gaztek** hartzen dute parte bi proiektu berritan (2004. urteaz geroztik, 86 dira parte hartu duten gazteak); hona hemen proiektu horiei dagozkien faseak:

#### a. I. Fasea: Prestakuntza teorikoa (500 ordu taldeko).

---

<sup>2</sup> Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Enplegu eta Prestakuntzarako Zuzendaritzak diruz lagundutako programak dira. Horien baitan dago prestakuntza prozesua eta ondorengo kontratazio aldia, prestakuntzan ikasitakoarekin lotutako lanak egiteko. Prestakuntza-ekintza bakoitzaren kostuen %100 finantzatzen dute diru-laguntzen bidez; horrez gain, kontratatutako pertsona bakoitzeko 8.000 (8-10 pertsona prozesu bakoitzeko), eta beste 16.000, kontratazioaldian, talde bakoitzean “lan-arduradun” gisa ari den pertsonaren kostuak ordaintzeko.

- **Teknologia Berriei Gizarte Aplikazioa ematen espezialistak:** 10 laguni prestakuntza ematen zaie zenbait arlotan: gaitasun tekniko nahiz informatikoan, talde-dinamikarako teknketan, eta gizarte nahiz komunitate ingurunearen ezagutzan.
- **Multimedia Inguruneko Teknikariak:** Gainontzeko 10 lagunen prestakuntza web espazioak diseinatzen oinarritzen da.

**b. II. Fasea:** Urtebeteko kontratua, lanaldi erdikoa, bi zeregin-mota garatzeko.

- 1. taldea Zentroa irekita mantentzeaz arduratzen da, goizeko 10:00etatik gaueko 22:00etara bitartean (4 orduko txandatan); bertan, pertsona nahiz kolektiboei laguntza eta prestakuntza ematen zaie, teknologietara hurbiltzeko orduan.
- 2. taldeak auzoko talde eta kolektiboen beharrianetara egokitutako web espazioak diseinatzen ditu; aurretiaz, tresna horiek izan dezaketen eraginaren inguruko informazioa eta sentsibilizazioa ematen zaie.

Talde biek jasotzen duten prestakuntzaren baitan, informatikari zuzenean dagozkion gaiez gain (linux, interneteko segurtasuna, blogak, software askeko aplikazioak, sareko eta interneteko protokoloak: POP/SMTP, HTTP, FTP, SSH...), gizarte-gaietako edukiek ere garrantzia handia dute. Alor hauei buruzko prestakuntza-edukiak izaten dira: talde-lana, gizarte-gaitasuna, kulturartekotasuna eta immigrazioa, tokiko ingurunearen ezagutza, ingurumeneragina... Horiek guztiek erabateko garrantzia dute, gerora begira, lan-sasoian izango dituzten eginkizunak betetzeko. Era berean, kontratazioak dirauen artean, PEF horretan parte hartzen duen ikasle orok enpresak kudeatzeko gaitasunei buruzko prestakuntza hartzen du, auto enpleguaren mundua ezagutu eta horretarako motibazioa pizteko helburuarekin. Prestakuntza hori auto enplegua lortzeko aukerekin lotuta dago, PEF bakoitzak garatzen duen lan-jardueraren arabera sortu daitezkeen aukerekin, alegia. Auto enpleguaren aldeko apustu hori hasi da dagoeneko emaitzak ematen; une honetan, izan ere, hiru dira Sareguneren laguntzari esker teknologia berrien alorrean funtzionatzen hasi diren enpresak.

Taldeak antolatzeko orduan, ahalegin berezia egiten da proiektuan parte hartzen duen gazte-taldeak egungo auzoaren aniztasuna ordezkatu dezan, hainbat esparruri dagokionez: hizkuntzak, kultura ohiturak, maila soziokultural

eta ekonomikoa, prestakuntza-maila, eta abar. Horrela, auzoan benetan dagoen aberastasun kulturala eta etnikoa islatzea lortzen da. Erreferentzia-talde desberdinen arteko zubi lana egitea da asmoa, zentrorra eta, ondorioz, teknologien mundura ahalik eta pertsona-mota gehien erakartzeko; betiere, bakoitzaren idiosinkrasia eta kultura errespetatuz, eta kultura arteko aniztasunen errespetu eta elkarrekiko gerturatzearen alde eginez.

Prozesu guztiak hezkuntza-profil egokia<sup>3</sup> duten pertsonen babesa dauka; horiek dira jarduera desberdinak koordinatu eta Zentroari teknikoki eusten diotenak. Ekipamendu informatikoa 28 ordenagailuz osatuta dago, denak software libreko Sistema Eragilez eta aplikazioz hornituak.

## 2.2. Oinarrizko Saregune Ikastaroak eta Hezigune Ikastaro Espezializatuak

Gure helburu espezifikotako da bat herritar erabiltzaileei prestakuntza ematea, eguneroko aplikazio informatikoak ulertu, ezagutu, erabili eta maneiatu ditzaten, hala nola, testu-prozesadoreak, Internet bidezko nabigazioa, posta elektronikoren erabilera, irudi eta soinuaren maneia... Horretarako, Oinarrizko Ikastaro batzuk egiten ditugu, eta interesa duen orok parte hartu dezake horietan. Ikastaro horien iraupena, batez beste, 6 edo 7 ordukoa izan ohi da; hala ere, horien ezaugarri nagusietako bat da, ez dutela iraupen jakinik, iraupena aldakorra baita, parte-hartzen duen pertsonen ikasketa-helburuen arabera. Parte-hartzaileen taldeak interes komunaren arabera antolatzen dira, hau da, edukia, ordutegia, hizkuntza, eta abar.

Ikastaro horien edukia aldatuz joan da azken urteetan; hala ere, honela laburbildu daiteke:

- Informatikaren hastapenak.
- Posta elektronikoa.
- Gimp.
- Teknologia Berrien erabilpena.
- Oinarrizko Internet.
- Openoffice writer.
- Blogak eta web 2.0 baliabideak.


Bestalde, Hezigune **Ikastaro Espezializatuak** ematen zaizkie auzoko nahiz inguruko kolektibo zehatzei, eta ez norbanakoei. Prestakuntza-proposamen

<sup>3</sup> Trabajo Social, Educación social, capacitación en Tiempo Libre y perfiles técnicos con un enfoque predominante humanista y social (Filología, Diseño web, Ingeniería informática).

horiek barne kudeaketara nahiz kanpoaldera begirako komunikazio eta dibulgazio prozesuak errazten dituzten aplikazio nahiz baliabide teknologikoak ikastera bideratuta daude. “Neurrira” egindako prestakuntza-tailerrak ere garatu dira gizarte-egoera larrian dauden zenbait pertsona-kolektiborekin. Oinarrizko Ikastaroetan bezala, hauetan ere edukia aldakorra izaten da eta honela laburbildu genezake:

- OpenOffice Calc (kalkulu-orria).
- Scribus (kartelak eta diptikoak).
- Web 2.0.
- OpenOffice Impress (aurkezpenak).
- Web orriak-blogak maneiatu eta sortzea.

Dela Oinarrizko Ikastaroetan, dela Hezigune Ikastaro Espezializatuetan, eskaerak hazi egin da azken lau urteetan. Horregatik, bai ikastaro kopuruak, bai parte-hartzaileenak gora egin du modu esanguratsuan. Ondorengo grafi-koetan ikus dezakegu aipatu gorakada, zentroa ireki zenetik gaur egun arte.



Ikastaro mota horiek biak 2.1. puntuan azaldutako Prestakuntza eta Enplegu Planen bidez prestakuntza jaso duten pertsonak kontratatuta eman dira. Hau da, hasieran ikasle izandakoak irakasle izatera pasatu dira, zeregin hori ezinbestekoa baita norberaren lanaz gaitasunak eskuratzeko.



### **3. Sistematizazio-prozesua: zer sistematizatu eta zertarako**

Gure esperientzia sistematizatzeari ekin genionean, horixe izan zen agertu zitzaigun arazorik garrantzitsuenetakoa. Hau da: Sistematizazio guztia gidatuko zuen XEDEA, HELBURUA eta ARDATZA definitu behar genituen.

Kontzeptuaren ikuspuntutik abiatuta, bai Xedea, bai Helburua, bai Ardatza, elementu sinpleak dira erabat. Hala ere, modu argi eta zehatzean mugatu beharra geneukan, eta hori definitzeko behar adina denbora hartu behar genuen.

#### **3.1. XEDEAren definizioa**

Oso garrantzitsua zen esperientziaren zein zati sistematizatu nahi genuen zehaztea. Saregune-ren kasuan, abian jarri aurreko gertaerak kontuan hartuta ekin behar genion prozesuari. Hala egin genuen; izan ere, gure hastapenak kontuan hartzea oso baliagarria gerta dakiguke, etorkizunean, bai Sartu-n bertan erabiltzeko, bai gure proiektuan interesa izan lezaketen gainerako elkarteetara eskaintzeko Beraz, honela idatzi eta jaso dugu gure sistematizazioaren xedea:

**Saregune, teknologiaren erabilera sozial eta komunitario baten alde.**

**Jarduera eremua:** Gasteizko alde zaharra.

**Epealdia:** aurretikoak (2003) - Proiektua (2004-2008).

### 3.2. HELBURUAREN definizioa

Gure sistematizazioaren helburua definitzerakoan, kontuan izan dugu Sartu Alava elkarrearen eginkizun instituzionala, hau da:

*SARTU-ALAVA elkarrea irabazi asmorik gabeko elkarre pribatua da; gizarte-zerbitzuen alorrean dihardugu, **marjinazioari eta gizarte bazterketari aurre egiteko helburuarekin.***

Gure helburua idatziz jasotzeko unean, egiteko hori berariaz azpimarratuta geratzea nahi genuen; eta teknologia berriak Saregune-ren funtsezko elementuak direla kontuan hartuta, aipatu deskribapen-idatzian honako elementuak agertzea komeni zela erabaki genuen:

- **Ikaskuntza:** Gure sistematizazioak ikasteko balio behar digu.
- **Komunikaziorako baliagarria:** Gure sistematizazioak gainerakoei komunikatzeko gaitasuna izan behar du.
- Informazio eta Komunikaziorako Teknologia (TIC) izango dira gizarte-bazterketaren aurka erabiliko ditugun tresnak.
- **Software askearen** erabilera, funtzionamendu teknologikoaren filosofia gisa.

Gure helburua, beraz, honela jasota geratu da:

Saregune abian jartzetik ikasitakoa biltzea, TIC direlakoan bidez eta software askea erabiliz, gizarte-bazterketaren aurka egin eta esperientzia komunikagarri bihurtu daitekeela erakusteko.

### 3.3. ARDATZAREN definizioa

Gure esperientziaren sistematizazioa, sistematizazio-ardatzaren ikuspegitik abiatuta landuko dugu. Esperientziaren analisi kritikoa eta hausnarketa egiteko orduan lagunduko digu batez ere. Definizio hori idatziz jasotzeko unean, nahitaezkoa iruditu zaigu honako elementuak sartzea, horiek gabe ezinezkoa bailitzateke esperientzia bera bizitzea:

- Honako ardatzetan **hobetzea**:
  - Teknologia berriak **aske eta dohainik eskuratzea**.
  - Teknologia berrien arloko **prestakuntza**.
  - Teknologia berriei buruzko **informazioa** jasotzea.
  - **Jabekuntza-maila** handiagoa lortzea.
- Gasteizko Alde Zaharreko **erabiltzaileak, kolektiboak, instituzioak**.
- Prestakuntza eta Enplegu Planetan parte hartzen duten **pertsonak**, eta koordinazio-taldea.

Prestatu ditugun pertsonengandik eta proiektua osatzen dugunon aldetik, Saregune-ren errealitateak erabiltzaile, giza talde eta erakundeentzat, hau da, Gasteizko Alde Zahararentzat dakarren hobekuntza.



## 4. Definizio metodologikoak<sup>4</sup>

Malgutasuna da sistematizazio bat gauzaterakoan hartu beharreko ildo metodologikoa deskribatzen duen ezaugarri nagusia. Talde bakoitzaren dinamika eta ezaugarrietara uneoro egokitzeko moduko prozesua da. Hala ere, badira nahitaez eman behar izan genituen urrats edota etapa batzuk; azken horiek, aldi berean, egiteko jakin batzuk barne hartzen zituzten, gure sistematizazioa arrakastaz gauzatzeko beharrezkoak ziren egitekoak, alegia.

Hona hemen, zehazki, arestian aipatu ditugun etapak:

Fasea	Egitekoak
Aurre-fasea Sistematizazioaren antolaketa.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Esperientziaren arduradunekin komunikatu eta koordinatzea.</li><li>• Lan egitasmo bat prestatzea, sistematizazioa gauzatzeko aurreikusten diren egun eta orduak jasotzen dituena.</li></ul>
Lehenengo fasea Analisi-eremua mugatzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Esperientziaren ondorioz sorturiko orotariko informazio eta dokumentuak jasotzea (aktak, egunkariak, grafikoak, argazkiak, prentsa-oharrak, txostenak...).</li><li>• Igurikimen, zalantza eta galderak identifikatzea.</li><li>• XEDEA, HELBURUA, eta ARDATZA definitzea.</li></ul>

<sup>4</sup>Metodologiari dagokionez, erreferentetzat hartu ditugu Alboan-ek argitaratutako gidak: “*La sistematización, una nueva mirada a nuestras prácticas. Guía para la sistematización de experiencias de transformación social*” eta “*La aventura de la sistematización. Cómo mirar y aprender de nuestras prácticas desde nuestras prácticas*”. Gida horiek [http-en aurki daitezke://www.alboan.org/sistematizacion/](http://www.alboan.org/sistematizacion/).

Fasea	Egitekoak
Bigarren fasea Bizi izandako prozesua berreskuratzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bizitako prozesua berregitea, kontakizun eran.</li> <li>• Esperientziaren UNE GARRANTZITSUAK identifikatzea.</li> </ul>
Hirugarren fasea Hausnarketa sakona: Esperientziaren interpretazio kritikoa eta ezagutza sortzea.	<p>Ahozko iturrietatik informazioa biltzea (esperientziaren arduradunak, onuradunak, elkarteak...).</p> <p>Esperientziaren inguruko hausnarketa sakona:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hausnarketarako puntu kritikoak identifikatzea.</li> <li>• Hausnarketa-puntu kritiko bakoitza banan-banan aztertzea.</li> <li>• Gertatuatakoaren zergaitiak aztertzea: zergatik gertatu zen horrela?, Zer nolako eragina du ardatzean?</li> </ul>
Laugarren fasea Amaiera-puntua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ondorioak ateratzea.</li> <li>• Ikaskuntzak aurkeztea.</li> <li>• Gomendioak egitea.</li> </ul>
Bosgarren fasea Esperientziaren jakinarazpena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistematizazioaren esperientzia jasotzen duen dokumentua idaztea.</li> <li>• Emaitzak foro desberdinen bidez jakinarazi edota komunikatzea.</li> </ul>

Beraz, sistematizazio hau burutzeko, ikerketa kualitatiboko zenbait teknika erabili ditugu, fase edota egiteko bakoitzaren helburua kontuan hartuta:

- Talde-dinamikak: Esperientziaren inguruko ikuspegi eta alde desberdinauk aukeratu eta bateratzea. Horietan, hasiera-hasieratik Saregune proiektuarekin harremanetan egon diren pertsonak hartu dute parte.
- Elkarriketa sakonak: Esperientziaren onuradunak diren pertsona edota erakundeen ikuspuntua jasotzea (elkarteak, erakundeak...).
- Galdetegiak: Saregune-rekin batera proiekturen batean parte hartu duten elkarteek proiektuaren beraren inguruan duten ikuspegia ezagutzea.
- Analisi dokumentala: Erakundeak sortu dituen dokumentu esanguratsu guztiak bildu eta irakurtzea.
- Behaketa zuzena: Esperientziak barnetik duen funtzionamendua eta dinamika in situ ezagutzea.

## 5. Esperientzia berreskuratzea eta analisi kritikoa

Saregunek lau urteetan zehar bizi izandako prozesuaren berreraikitze-lana izan zen eman genuen lehen urratsa. Hori da, hain zuzen, sistematizazio ororen funtsezko uneetariko bat. Gure esperientziaren historia kronologikoki berreraikitzea da helburua, etapa nahiz une garrantzitsuak identifikatuz.

Berreraikitzea hori egiteaz gain, atal honetan areago sakonduko dugu sistematizazioa interpretatzeko elementu horretan. Izan ere, sistematizazio ororen funtsezko fasea da hau, eta orduan sortzen da benetako ezaguera. Prozesuaren fase honetako metodologia diseinatu dugu orain arte egindako guztia berreskuratze eta kritikoki analizatzeko, eta berreskurapenean mugarri izan diren uneak aukeratu ditugu<sup>5</sup>. Analisia egiteko abiapuntutarako balio izan digute, eta, era berean, hausnarketa egiteko hainbat gai kritikotan banatu ditugu, sakoneko gogoeta egiteko bidean gidatzeko. Egin dugun analisi osoaren helburua izan da jakitea zer-nolako eragina izan duten ardatz horretan mugarri guztiek eta haiek analizatzeko aukeratutako hausnarketa-gaiek.

### 5.1. Hasiera-puntua: 2003

Gure sistematizazioari ekiteko orduan, beharrezkotzat ikusi dugu gure hastapenak azaltzea, proiektua bera abian jarri aurreko egoeratik abiatuta, hain zuzen ere. Hori horrela, esperientzia aurreko uneak hartu ditugu abiapuntu gisa. Nola sortu zen ideia? Nola bilatu proiektuaren lokalizazioa? Nola finantzatu? Eta abar Gure ustez, aurreko une horien guztien kontakizuna erabat erabilgarria izan daiteke, eta antzeko proiektuak aurrera eramateko pizgarria ere bai, hala Sartu-ren baitan, nola kanpoan.

---

<sup>5</sup> Ver punto 6. *Mapa de momentos clave.*

## Idea

Saregune-ren abiapuntua 2003 urtearen erdi aldera kokatu behar dugu. Bizitza soziala nahiz pertsonala Alde Zaharrean egiten genuen Sartuko langile batzuen arduraren izan zen ekimena abiarazi zuena, oso kezkatuta baixearen auzoaren irudiaren inguruan komunikabideek egiten zuten erabilpenaz. Komunikabide horiek auzoa pairatzen ari zen ghetto prozesua aipatzen zuten behin eta berriz, hori guztia bestelako gaietara lotuz: immigrazioaren arazoa eta horren bidez sorturiko usteko elkarbizitza-arazoak.

Alde Zaharraren ikuspegi negatibo horrek eman zigun horren aurka zerbait egiteko ideia. Une hartan, esperientzia dezente geneukan Teknologia Berrien alorrean; izan ere, Enplegu eta Multimediaarako Plan bat ematen genbiltzan CETICen (Informazio eta Komunikazioaren Teknologien Ikastegia; Gasteizko Udaleko Sustapen Ekonomiko eta Plangintza Estrategikorako Departamentua). Horrek eman zigun gure proiektua teknologia berrien alorrean kokatzeko ideia.

Teknologia berrien aldeko gure apustua, ordea, haratago zihoan. Proiektuaren elementu estrategiko gisa, software librearen soilik erabiliko genuela erabaki genuen, hau da, erabilera-lizentziadun eta dohaineko banaketa zuten aplikazio informatikoak erabili nahi genituen soilik. Software askearen erabilera hori, guztiz bat dator baliabide teknologikoen erabilera komunaren inguruan daukagun filosofiarekin. Zehatzago, honakoak dira egun erabiltzen ditugun aplikazioak:

- Ofimatika: OpenOffice.
- Nabigazioa: Firefox eta Konqueror.
- E-posta: Thunderbird eta Ximian Evolution.
- Diseinua eta maketazioa: GIMP.
- Kartelen diseinua: Scribus.

Hasiera batean, FreeBSD eta Linux Debian ziren zentroak erabiltzen zituen sistema eragileak. Gaur egun, ordea, bai erabiltzaileentzako ordenagailuek, bai barne-kudeaketarako ordenagailuek Ubuntu<sup>6</sup> bidez funtzionatzen dute.

---

<sup>6</sup> [www.ubuntu.com](http://www.ubuntu.com)



Zentroko zerbitzari batean, bestalde, FreeBSD eta Debian mantendu dira, bai eta Internet bidez etor daitezkeen birusen aurka babesteko *firewall* bat ere.

### **Kokagune baten bila**

Kokagunerako lekuak, nola ez, Alde Zaharrean egon behar zuen. Zaila zen, ordea, eremu horretan gure proiekturako baldintzekin bat zetorren lokalen bat aurkitzea. Lokal handia eta argitsua interesatzen zitzaigun, bai bizilagunek, bai finantzaketan parte hartzen zuten erakundeek pertzepzio positiboa izan zezaten. Une hartan, 2003ko uda ostean, bat baino gehiago ziren *El Boulevard* merkataritza gunera lekualdatzen ari ziren komertzioak. Horixe zen, hain zuzen ere, egun Saregune dagoen tokian kokaturiko etxetresnakatearen kasua. Lekualdaketa horren berri izan bezain laster, negoziazioei ekin genien, aipatu lokala eskuratzeko asmoz.

Behin lokala eskuratuta, berau egokitzeari ekin genion, bertan burutu beharreko jarduera ahalik eta baldintza onenetan gauzatzeko. Jakina denez, komertzio baten egitura zuen eta, ondorioz, distribuzioa berriz diseinatu behar izan genuen. Ia bi hilabeteko lan gogorra izan zen hura; presaka egin beharrekoa gainera, 2004ko martxoan gune berria irekitzeko asmoa genuen-eta. Zeregin horretarako, Sartu Alava elkarteko hainbat pertsonak ziguten, bai eta une hartan zurgintzako moduluan lanean zihardutenek ere.

### **Nola finantzatu genuen?**

Saregune proiektua finantzatzeko unea erabat garrantzitsua izan zen hasierako une haietan. Zentzu honetan, erakunden bilbadura menperatzen duen kide bat talde barruan izatea ezinbestekoa da proiektuaren biziraupenerako. Proiektua prestatu eta instituzioen aurrean *saldu* ostean, finantzaketa honela geratu zen banatuta:

- **Esplai Fundazioa** (Conecta Sarearen bidez): Akordio bati esker, hamar ordenagailu dohaintzan eman eta zentroa koordinatzeaz arduratuko zen langile baten lansaria zati batez finantzatu zigun. Urtebete jardun zuen gurekin lankidetzan.
- **Eusko Jaurlaritza**: Enplegu eta Prestakuntzarako Planen bidez.
- **Gasteizko Udala**: Lokalaren gastuak.

Gaur egun, honela banatzen da proiektuaren finantzaketa:

Erakundea	Finantzaketaren helburua	Finantzaketa proportzioa
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza. Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzza Saila.</li> <li>• Eusko Jaurlaritza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntza-ikastaroak.</li> <li>• Enplegu eta Prestakuntza Planetan ari diren pertsonak kontratatzeke diru-laguntzak.</li> </ul>	%64
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etengabeko Prestakuntzako Zuzendaritza.</li> <li>• Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila Eusko Jaurlaritza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikaskuntza bitartekaria" eta mantentze-gastuen aparteko ekarpena.</li> </ul>	%18,5
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gasteizko Udala.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mantentze-gastuak.</li> <li>• Kontrataziorako diru-laguntzen eta benetako soldaten arteko diferentzia, hitzarmenaren arabera.</li> <li>• Laguntzarako hezkuntza-taldea, gizarteratzeari begira.</li> <li>• Informatika arloko koordinazio teknikoa.</li> <li>• Koordinazio orokorra.</li> </ul>	%17,5

## 5.2. Lehenengo mugarrria: lehenengo prestakuntza-eta enplegu planaren kontratazioa (2004)

### a. Lokala irekitzea

Saregune-k, azkenean, bere ibilbideari ekin zion. Lokalaren ateak 2004ko martxoaren 29an ireki ziren; hala ere, inaugurazioa ez zen urte horretako urri-arte egin. Gure asmoa zen lokala irekitzea eta abian jartzea *Teknologia Berriak Gizartean Aplikatzeko Espezialistak* trebatzeko lehenengo prestakuntza- eta enplegu-programa amaitu aurretik, eta horretarako arrazoiak praktikoak izan ziren, eta, aldi berean, kanpoan eta erakunde finantzatzaileen aurrean proiektuaren irudi ona ematekoak:

- Lehenbailehen jarri nahi genituen instalazioak eta ordenagailuak Alde Zaharreko auzotarren esku, guztiz erabilgarri.
- Prestakuntza- eta enplegu-programako ikasleak prestatzeko aldian zeuden; hau da, proiektua abian zegoen ordurako. Nolabait ikusarazi nahi genuen hori, eta modurik onena zen lokala irekita egotea prestatzeko aldiak irauten zuen bitartean.
- Gure asmoa zen ekipamendu informatiko eta instalazio elektriko osoa erabat abian egotea prestatuntza- eta enplegu-programako ikasleak lan-kontratuak egiten hasteko fasean zeudenerako. Alde horretatik, lokala bi astez egon zen irekita programako ikasleak etorri aurretik, eta lokalaren azpiegiturarekiko ezusteko txikiak konpontzeko balio izan zigun horrek; ikasleak lan-kontratuak egiten hasteko fasean sortu izan balira, benetako buruhausteak ekarriko zizkiguketen ezustekook.
- Proiektua erakunde finantzatzaileen aurrean justifikatu behar genuen, eta, horretarako, proiektuak martxan egon behar zuen erabat. Gainera, ez zen aski ikasle talde bat prestatzea; aitzitik, guztiz abian zegoen leku fisiko bat izan behar genuen eta, zer zerbitzu emateko konpromisoa hartu genuen, hura emateko ekipamendu informatiko nahikoa izan behar genuen.

## **b. Etenik gabeko ordutegiaren hasiera**

Hasieran, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara irekitzen genuen zentroa. Horixe egin genuen lehenbiziko bi asteetan, lehenengo prestatuntza- eta enplegu-programako ikasleek prestatzeko aldia amaitu bitartean. Zentroaren hasiera bateko ordutegia hura izatea erabakitzeke arrazoia giza baliabideen aldetik genituen mugak izan ziren batez ere. Izan ere, pertsona bakarra arduratzen zen lokala irekita egon zedin, eta, jendea hartzeaz gain, instalazioetan sortzen ziren gorabehera guztiak konpontzeaz arduratu behar zuen; alde horretatik, pentsatzekoa denez, gorabehera asko izan ziren, ireki berri zegoelako lokala. Jakina, ezinezkoa zen lokala goizeko hamarretatik gaueko hamarrek arte irekitzea pertsona bakarrak lan egiten bazuen han.

Lokala hamabi orduz jarraian (10:00etatik 22:00etara) irekitzea garrantzi handiko erabakia zen, eta bete-betean zuen eragina gizartearen barneko berdintasunik eza teknologia berrien bitartez gaintzeko helburuan. Alde horretatik, bi arrazoi estrategiko izan ziren nagusi etenik gabeko ordutegia aukeratzeko:

- Lokala hamabi orduz jarraian irekitzen bagenuen, informatika gehiago ikusaraziko genuen eta hura erabiltzeko aukera gehiago emango genuen.
- Zerbitzuaren funtzionamendua egonkorra izango zen hartara. Izan ere, prestakuntza- eta enplegu-planak abian ez zeudenean, zentroaz arduratzen zen pertsonetako bat gaixotu egiten bazen edo, dena delakoagatik, lanera etortzen ez bazen, behera etortzen zen zentroa. Alabaina, zentroa hamabi orduz irekiz, zerbitzua ordu guztietan ematea ziurtatuko genuen, prestakuntza- eta enplegu-programak abian baitzeuden ordurako.

Etenik gabeko ordutegiak bazuen alde txarrik, eta hau zen (eta oraindik ere bada) nagusia: material informatikoaren bizitza nabarmenki laburtzen da hamabi orduz jarraian badago abian. Zailtasun material bat ez ezik, funtzionatzeko zailtasun bat ere dakar horrek: egunero hamabi orduz jarraian funtzionatzen duen ekipamenduak askoz ere arazo gehiago ematen ditu, eta norbaitek arduratu behar du horiek konpontzeaz. Aurrerago ikusiko dugunez, zentroko langileen eginkizunak bereiztera behartu gintuen horrek.

### c. Inaugurazioa

Hasiera batean, Saregunea bai Gasteizko Udaleko, bai Eusko Jaurlaritzako politikariei eta teknikariei aurkezteko jai bat izan behar zuen inaugurazioak. Hala eta guztiz ere, auzoko ukitua eman nahi izan genion nolabait eta, horregatik, auzoko herritarrak eta taldeak eta elkarteak gonbidatu genituen inauguraziora, eta haienezako zerbitzu baten partaide bihurtu genituen.

Inaugurazioa egin genuenerako, proiektua guztiz martxan zegoen. *Teknologia Berriak Gizartean Aplikatzeko Espezialistak* trebatzeko lehenengo prestakuntza- eta enplegu-programako ikasleak lan-kontratuak egiteko fasean zeuden ordurako, eta *Multimedia Inguruneetako Teknikariak* trebatzeko lehenengo prestakuntza- eta enplegu-planeko ikasleak prestatzen ari ziren jada. Azken finean, lehen esan bezala, zerbitzua ikusarazi nahi genuen, guztiz martxan zegoela jakin zezaten nahi genuen.

Ospakizuna antolatzeak lan-zama handia eragin zigun, eta halako etsipena sortu zigun nola erakutsi zuten zenbait komunikabidek proiektua. Izan ere, lokala inauguratzeko ekitaldiaren aurretik, hainbat komunikabide deitu genituen, proiektua azaltzeko prentsaurreko bat emateko, baina, gure ikuspegitik, komunikabide jakin batzuek ez zuten eman Saregunearen berri guk azaldu genien bezala.

Nolanahi ere, balantzea ona da erabat, arrazoi hauek direla medio batik bat:

- Proiektua ezagutarazteko bide eman zuen eta hura ezagutaraztea bul-tzatu zuen.
- Klase politikoari proiektuan parte harrarazi genion. Azken batean, helbu-rua zen zerbitzua ezagut zezaten guztiz martxan zegoela, zehatz-mehatz jakin zezaten zer finantzatu zuten.
- Hasiera batetik Saregunean fidatu ziren Eusko Jaurlaritzako eta Gasteizko Udaleko teknikari guztiei esker ona adierazteko ekitaldia izan zen.

#### **d. Inguruko elkarrekin harreman informalak**

Hasiera batean, ezin izan genuen egin inguru hurbileko elkarrekin eta tal-deekiko harremanak sortzeko lan egituratua, eta, erabaki estrategiko baten ondorio baino gehiago, zentroa abian jartzeko dinamikaren beraren ondorio izan zen hori, egiteko garrantzitsu hori geroagorako uztera behartu baikin-tuen. Alde horretatik, arazo nagusia denbora falta eta eginkizun horretaz bera-riaz arduratzen zen pertsona bat ez izatea izan zen: zentroko langile guztiak teknikariak ziren gizarte-langileak baino gehiago. Oso baliagarria zen horre-lako pertsonak izatea, ordenagailuak sorrarazten zizkiguten arazoan konpon-ketan baitzetzen neurri handi batean lana, baina kanpo-harremanen esparrua alde batera gelditu zen pixka bat horren ondorioz.

#### **e. Koordinazio-taldea handitzea eta lankide berri bat sartzea**

Aurreko atalarekin estu lotuta, koordinatzaile kopurua handitzea eta lankide berri bat hartzea dugu. Izan ere, gizarte-lanetik hurbil zegoen pertsona bat ez izateak gure ikuspegitik oso garrantzitsuak ziren hainbat alderdi (hala nola kanpo-harremanak) lantzea galarazi zigun. Hori dela eta, lehentxeago esan bezala, zentroko koordinatzaile iraunkorren kopurua handitzea eta lankide berri bat (falta zitzaigun gizarte-alderdia jorratzen zuen pertsona bat) hartzea erabaki genuen. Hartara, Saregunearen barneko funtzioak bereizten hasi ginen: batetik, prestakuntza teknikoak zuten pertsonak genituen eta, bestetik, gizarte-esparruaren inguruan lan egiten zuten pertsonak genituen.

### **5.3. Bigarren mugarrria: Hezigunea martxan jartzea (2005)**

Orduetik, Hezigunea kudeaketa normalizatua zuen zentro bilakatu zela esan daiteke, eta interesa zuten taldeek erabiltzeko moduan zegoela erabat. Gure

asmoa zen taldeen esku jartzea lokala, tresna teknologikoak erabiltzen ikas zezaten eta, ondoren, bai beren barnean, bai beren jarduna kanpoan ezagutarazteko erabil zituzaten.

Alabaina, ordenagailuak beren kabuz erabiltzeko elkarteen eskaria ez zen oso handia, eta, denbora igaro ahala, ohartu ginen prestakuntza nahi zutela gehienbat; gehienek bazituzten ordenagailuak nork bere lokalean. Edonola ere, gaur egun, sortzen ari diren plataformek eta ekimenek zentro irekiztat ere erabiltzen dute Saregunea.

### **a. Koordinazio-taldera lankide berri bat sartzea**

*Teknologia Berriak Gizartean Aplikatzeko Espezialistak* trebatzeko prestakuntza- eta enplegu-programa bateko kidea zen lankide berri hori, eta lanaldi erdia ematen zuen programaren berezko lanean. Gure asmoa zen Hezigunea arratsalde dinamiza zezan, eta pertsona hori lanaldi osoan aritzea pentsatu genuen, lanaldi erdia Hezigunean eman zezan. Hezigunea dinamizatzeke lana zentroa irekita izatea zen, etortzen ziren elkarteei laguntzea, elkarteekin harremanetan jartzea eta informazioa ematea:

- Lan eskematizatuagoa egiten hasi ginen elkarteekiko harremanetan, eta, horri esker, gero eta elkarte gehiago etortzen dira Hezigunea arratsalde erabiltzera.
- Aldi berean prestakuntza- eta enplegu-programa batean parte hartzen ari zela eta koordinatzaile zela-eta, hainbatetan nahastuta zegoen koordinatzaile berria proiektuan betetzen zituen funtzioei buruz.
- Ohartu ginen lanaldi osoa eman behar zela Hezigunea koordinatzeko, inork bi funtzio betetzea ez zela aproposa.

### **b. Saregune proiektua auzoko elkarteen artean ezagutaraztea**

Saregune proiektua elkarteen artean ezagutarazten hasteko erabakia aipatu dugun pertsona hartzeari esker etorri zen, hura egiten hasi zen lanaren zati bat baita. Pertsona hori heldu zenean, talde askorengana hurbiltzen hasi zen Saregunea, eta hainbat ekimenetan parte hartu zuen haiekin batera.

Posta bidezko propaganda egin genuen Alde Zaharrean nagusiki, eta ematen genituen zerbitzuak azaltzeko txantilo bat banatu genuen tartean. Publizitate

gehiago bidali genien hari erantzun zioten elkarteei, zehatzagoa, zehazkiago azaltzeko zertan zetzan zerbitzu bakoitza: e-learningerako plataforma, bloga, wikia... Hortik abiatuta, lan txikiak egiten hasi ginen elkarrekin.

Komunikazio-lan horren esparruan, Alde Zaharreko elkarteen mapa bat ere egin genuen. Gure interesa zerk pizten zuen bahetu genuen, eta gureen antzeko balioak eta helburuak zituzten eta, era berean, eguneroko funtzionamendurako teknologia berriekiko interesa zuten elkarteak aukeratzen hasi ginen. Harreman horien ondorioz, beste elkarte batzuekin batera hainbat ekimenetan parte hartzeko aukera sortu zen, eta horren emaitza izan zen hainbat elkarterekiko lankidetzak: AZAO, Amanda ([www.amanda.elkarteak.net](http://www.amanda.elkarteak.net)), etab.

Aldi berean, hainbat hitzaldi antolatzen hasi ginen zenbait taldetan eta elkartetan, software librearen erabilera jendarteratzen eta zabaltzen ahalegintzeko. Hitzaldi horietatik abiatuta, ERDU Gasteizko Udaleko Elkarte eta Boluntarioritzako Agentziarekin elkarlanean hasi ginen, talde jakin batzuk prestatzen. Hainbat taldetako 70 edo 80 pertsona inguruk parte hartu zuten hitzaldietan, eta ondoren elkarrekin egindako zenbait lanen ernamuina izan ziren.

### **c. Web-produktuak prestatzea eta elkarteei eskaintzea**

Aurreko bi ataletan aipatutako lankidea sartzearekin estu lotuta, elkarteei eskaintzeko hainbat web-produkturen prestaketa dugu. Izan ere, lankide berri horren presentziari esker, alor horretan egiten genuen lana sendotu eta areagotu dugu.

Gure asmoa zen Alde Zaharrean lan egiten zuten talde guztiengana hurbiltzea eta, pixkanaka-pixkanaka, ikustea zeinek zuten benetako interesa teknologia berrietan eta zeinekin izan genitzakeen alor honetan elkarlanean aritzeko harremanak. Eskaintza horren harrera ezberdina izan zen elkarteen artean: elkarte batzuei ez zitzairen iruditu idia ona, eta beste batzuek, berriz, interesa adierazi zuten. Horiekin, goian aipatu prestakuntza ez ezik bestelako jarduerak ere burutzen ditugu (blogak edota Interneteko bestelako web guneak); euren mezuak eta jarduerak hedatzeko baliagarri zaizkie eta auzoko jarduera suspertu eta dinamizatzeke helburua betetzen dute. Adibide gisa, jarraian, aipatu erakundeekin elkarlanean sortu dugun blog-kopurua jasotzen duen taula bat erantsi dugu:

Sortutako web orriak eta blogak		
elkartek.net	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://afrikicultura.elkartek.net">http://afrikicultura.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://duniatopaketa.elkartek.net">http://duniatopaketa.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://acdcampillo.elkartek.net">http://acdcampillo.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://aquivivoaquivoto.elkartek.net">http://aquivivoaquivoto.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://ekilore.elkartek.net">http://ekilore.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://ata.elkartek.net">http://ata.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://cfaranbizkarra.elkartek.net">http://cfaranbizkarra.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://amanda.elkartek.net">http://amanda.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://zilipurdi.elkartek.net">http://zilipurdi.elkartek.net</a></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://gizarterako.elkartek.net">http://gizarterako.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://arazoak.elkartek.net">http://arazoak.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://aisia.elkartek.net">http://aisia.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://ainara.elkartek.net">http://ainara.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://asafima.elkartek.net">http://asafima.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://pintamonas.elkartek.net">http://pintamonas.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://bidez kobidean.elkartek.net">http://bidez kobidean.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://centrosdecultura.elkartek.net">http://centrosdecultura.elkartek.net</a></li> </ul>
tieneblog.net eta badublog.net	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://niremunduak.badubloga.net">niremunduak.badubloga.net</a></li> <li>• <a href="http://ainhoak.badubloga.net">ainhoak.badubloga.net</a></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://elsahara.tieneblog.net">elsahara.tieneblog.net</a></li> <li>• <a href="http://enredandoescuelas.tieneblog.net">enredandoescuelas.tieneblog.net</a></li> </ul>
sorkuntza prosezuan	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://povodasenzala.elkartek.net">http://povodasenzala.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://alokairuduina.elkartek.net">http://alokairuduina.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://eloy.tieneblog.net">http://eloy.tieneblog.net</a></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://koloreguziak.elkartek.net">http://koloreguziak.elkartek.net</a></li> <li>• <a href="http://gasteizaktiba.net">http://gasteizaktiba.net</a></li> </ul>
elkartze ataria	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://www.elkartek.info">http://www.elkartek.info</a></li> </ul>	
e-learning	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://hezigune.gasteizaktiba.net">http://hezigune.gasteizaktiba.net</a> (migratzeko prozesuan)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://hezigune.saregune.net">http://hezigune.saregune.net</a> (garapen prozesuan)</li> </ul>
komunikazioa eta partekaturiko lana	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://alava.sartu.net">http://alava.sartu.net</a></li> <li>• <a href="http://hikhasi.saregune.net">http://hikhasi.saregune.net</a></li> <li>• <a href="http://saregune.net">http://saregune.net</a></li> <li>• <a href="http://wiki.saregune.net">http://wiki.saregune.net</a></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://wiki.sartu.net">http://wiki.sartu.net</a></li> <li>• <a href="http://zabaltzen.sartu.net">http://zabaltzen.sartu.net</a></li> <li>• <a href="http://hezigune.saregune.net">http://hezigune.saregune.net</a></li> <li>• <a href="http://ikasi.saregune.net">http://ikasi.saregune.net</a></li> </ul>
kanpoko eremuetan	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://pda-espana.org">http://pda-espana.org</a></li> <li>• <a href="http://blog.izan.es">http://blog.izan.es</a></li> <li>• <a href="http://asafima.com">http://asafima.com</a></li> <li>• <a href="http://bizibide.com">http://bizibide.com</a></li> <li>• <a href="http://hirueskuak.org">http://hirueskuak.org</a></li> <li>• <a href="http://redsolidaria.info">http://redsolidaria.info</a></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <a href="http://fibromialgia-divulgacion.info">http://fibromialgia-divulgacion.info</a></li> <li>• <a href="http://azao.siliconlautada.net">http://azao.siliconlautada.net</a></li> <li>• <a href="http://paisvasco.pda-espana.org">http://paisvasco.pda-espana.org</a></li> <li>• <a href="http://www.ian-ani.org">http://www.ian-ani.org</a></li> <li>• <a href="http://www.territorioslibres.info">http://www.territorioslibres.info</a></li> <li>• <a href="http://www.mundubildu.org">http://www.mundubildu.org</a></li> </ul>

2009ko Otsailean eguneratua.

Prest zeuden elkarteekin web-guneak sortzen hasi ondoren, web-guneak mantendu eta haiek betetzeko edukiak sortu behar dira. Elkarte bakoitzak sortzen ditu edukiak, eta *Multimedia Inguruneetako Teknikariak* trebatzeko prestakuntza- eta enplegu-planetako ikasleak arduratzen dira guneak mantentzeaz. Alde horretatik, arazo bat dugu antolaketarekin: nahiko denbora luzea igarotzen da prestakuntza- eta enplegu-programa bat amaitzen denetik



hurrengoak sortzen den arte, eta, horren ondorioz, dinamizazioa eten egiten da eta zentroko koordinatzaile taldeak lan-zama handiagoa du, hartaz arduratu behar duelako. Oraindik ere ez dugu ondo hartu hori.

#### **d. Munduko Arrozen Jaialdia antolatzea**

Elkartekiko harremanetatik ekimen berri askotan parte hartzeko aukera sortu zen. Horietako bat Munduko Arrozen Jaialdia antolatzen parte hartzeko aukera izan zen: Bilbon antolatzen zuten, eta Gasteizen ere egin nahi genuen.

Laburbilduz, hauek dira jaialdi horren helburuak edo izateko arrazoiak:

- Kalea aldarrikatzea.
- Hainbat jatorritako pertsonak elkarri hurbiltzea.
- Esparru normalizatu batean elkarrekin bizitzea.

Hasiera batean, Sareguneak antolatzen zuen zuzenean jaialdia, baina, gaur egun, ahalegintzen ari gara auzoko talde gehiagok parte har dezaten antolaketan, batera har dezagun jaialdia antolatzeko erantzukizuna. Espero dugu beste erakunde batzuek hartu egingo dutela konpromiso hori, lan-zama handia baitakar jaialdia antolatzeak eta neurri handi batean eragozten baitu Saregunearen eguneroko lana.

### **5.4. Hirugarren mugarrira: funtzioak bereiztea (2006)**

#### **a. Funtzioak bereiztea**

Sareguneko lan-taldean kide berriak sartzeari esker, lan teknikoan sakonkiago jarduteko aukera izan zuten teknikariek, software librearen erabileran oinarrituta betiere. Hainbat hobekuntza ekarri zituen horrek, hala nola erabiltzaileen eta haien datuen baimentzea zentralizatzeko aplikazio bat sortzea. Horren ondorioz, zerbitzua hobetu egin zen: pasahitzaz babesturiko kontu pertsonalak eskaintzen hasi ginen, baita datuak biltegitatzeko gune pertsonal eta pribatuak ere. Ordutik, beren kontua dute erabiltzaileek, pertsonalizatu eta konfiguratu egin dezakete, eta beraiek bakarrik ikus ditzaketan datuak gordezko aukera dute.

Aitzitik, nabarmentzekoa da, funtzio gehiago ezarri ditugula-eta, sistema konplexuagoa dela, eta erabiltzaileek gehiago ikasi behar dutela hura baliatzeko.

## **b. Zentroa ezagutarazteko lana biziagotzea**

Aurkezpen-gutun bat idatzi eta bai auzoko, bai hiriko beste auzoetako eta Arabako beste udalerrri batzuetako hainbat elkarteri bidali genien, Hezigunea eta Saregunea aurkezteko eta, gainera, software librearen erabileraren gaineko gure ikuspegia ezagutarazteko. Uste genuen beharrezkoa zela Saregunea eta Hezigunea auzoko beste elkarte eta talde batzuei ezagutaraztea, sareak sortzen jarraitzeko. Ekimen horri esker, ordura arte ezagutzen ez genituen hainbat mugimendu eta elkarte ezagutu genituen, eta haiekin lan egiteko aukera aztertu genuen.

## **c. [www.elkarteak.info](http://www.elkarteak.info) ataria sortzea**

Saregunea Alde Zaharreko bizitza dinamizatzeko elementu bihurtzea helburu, elkartearen ataria sortzeko lanean hasi ginen: **[www.elkarteak.info](http://www.elkarteak.info)**. Gasteizko elkartearen lana zentralizatzeko tresna komun bat da ataria, eta haiek areago ikusarazteko balio du. Gune hori konfiguratzeke, proposamen bat egin genion Udalari, ERDU Gasteizko Udaleko Elkarte eta Boluntariotzako Agenteziaren bidez.

Atariaren bitartez, gure helburua da elkartei buruzko informazioa ematea herritarrei eta kanpo- eta barne-komunikabide bat sortzeko aukera ematea elkartei. Hain zuzen ere, gure asmoa da sare-lanean aritzeko bide ematea eta elkarteek teknologia berriak erabil ditzaten bultzatzea.

## **d. [www.gasteizaktiba.net](http://www.gasteizaktiba.net) sortzeko lanean hastea**

Beste proiektu interesgarri batean lanean hasi ginen garai hartan: **[www.gasteizaktiba.net](http://www.gasteizaktiba.net)** ataria sortzeko lanean. Gaur egun, garapen-bidean dago, baina auzotarren eta saltoki txikien egitekoa eta garrantzia areagotzeko atari bat izatea nahi dugu. Inolaz ere ez dago **[www.elkarteak.info](http://www.elkarteak.info)** atariaren gainean, elkarteak baitira haren hartzaileak neurri batean.

Gure ustez, elkarteentzako gune batez gain, Alde Zaharraren irudi ona emateko gune bat behar zen, eta hiru ardatz ezarri genituen Alde Zaharra horretarako:

- Auzotarrak.
- Elkarateak.
- Saltoki txikiak.

Plataforma sendoa da, eta senez eta erraz erabiltzeko modukoa da. Azken batean, gure helburua da Alde Zaharreko auzotarrek auzoko bizitzari buruzko informazioa lehen pertsonan emateko gune bat izatea; protagonista eta informazio-sortzaile bihurtzeko ahalmena ematea auzotarrei.

Lehenbiziko urtean, informazioa biltzen eta saltoki txikiak ataria sortzen laguntzeko prest zeuden aztertzen jardun genuen, eta oso harrera ona izan genuen. Hainbat saltoki txiki elkarrizketatu genituen, haiei buruzko oinarriko informazioa (ordutegia, zer zerbitzu ematen dituzten, zer produktu saltzen dituzten...) biltzeko, eta argazkiak erantsi genizkion informazioari. Aldi berean, atariaren balia garritasunari buruzko kontzientzia harrarazten ahalegindu ginen.

Gaur egun, ataria probatzen ari gara. Badago erabiltzaileek ikus dezaketen edukia, baina barnean ari gara lanean batez ere, eta gure asmoa da ataria 2009ko lehen hiru hilabetetan jartzea martxan erabat.

## **5.5. Laugarren mugarrria: koordinazio-taldea berregituratzea (2006)**

### **a. Koordinazio-taldera prestakuntza- eta enplegu-programa bateko ikasle ohi bat sartzea**

Aurrez prestakuntza- eta enplegu-programa batean parte hartu zuen pertsona bat koordinazio-taldean sartzeko erabakia estrategikoa izan zen nabarmenki. Hau zen apustua: Saregunearen funtzionamendua eta eguneroko jarduna barneetik ezagutzen zuen norbait izan zedin gurekin. Alde horretatik, haren presentziak oso ikuspegi interesgarri eta aberasgarria eman zigun. Izan ere, zentroaren funtzionamenduaren beste alderdi batzuk lantzen hasi ahal izan ginen hari esker, ordura arte hauteman ez genituenak:

- Alde teknikoa bazter utzi gabe, gizarte-lanaren esparruko langilea da nabarmen eta, horri esker, xehetasun handiagoaz egin dezakegu prestakuntza - eta enplegu- programetan parte hartzen duten pertsonen heziketa-prozesuaren jarraipena.
- Kontuan izanik prestakuntza- eta enplegu-programak pertsona askoren lan-munduko lehenengo esperientzia direla, lankide berri hori izateak babes handiagoa ematen du lan-merkatuan sartzeko nahitaz ikasi beharreko lan-ohiturak (lanera joatea, garaiz iristea, lanera ez joateko arrazoiak ematea...) ikasteko.

- Hasieran, arratsaldez aritzen zen funtsean, eta, horri esker, zentroa irekita zegoen ordu guztietan zegoen. Hartara, txanden arteko komunikazioa hobetu zen, eta, bereziki, zentroaren berezko jarduerak aurrera eramateko irizpideak eta eginkizunak bateratu genituen.
- Dinamizatzaileek erreferentziako pertsona bat dute beti eskura, zalantzak argitzeko eta galderak egiteko.

Bestalde, kanpo-komunikazioa areagotu genuen garai hartan. Besteak beste, Errioxako Unibertsitatera joan ginen gure proiektua aurkeztera, ETBk gurekiko interesa adierazi zuen, Extremadurako Gobernuarekin harremanetan egon ginen –software librea erabiltzen dute han administrazioko ordenagailu guztiek–, gure proiektua Europako bi finalistetako bat izan zen software librearen Chris Nicol sarietan... Halaber, aipatzekoa da Mark Shuttleworth bisitan izan genuela garai hartan, proiektua Deustuko Unibertsitatean aurkeztu genuela, EHUren uda-ikastaro batean parte hartu genuela...

## **b. Web TB bat sortzeko asmoa**

Web TB bat sortzearen helburua ordura arte komunikatzeko erabiltzen genuen hizkuntza berritzea zen. Ordura arte, blogetan, wikietan, web-orrietan... oinarritzen ginen, baina Youtube sortzea benetako pizgarria izan zen eta komunikatzeko modu berriak iradoki zizkigun. Jauzi kualitatiboa izan zen, askoz ere arreta handiagoa jartzen hasi baikinena multimedia tresnetan (entzunezkoetan, ikusizkoetan eta abarretan), bai eguneroko lanean, bai prestakuntza- eta enplegu-programetan.

Oso aurrekontu txikiko web TB bat sortzea eta [www.gazteizaktiba.net](http://www.gazteizaktiba.net) ataria osatzea zen premisa, gune horrek askoz ere gehiago erabiltzea ikus-entzunezko hizkuntza. Zailtasunak genituen, oster, lan-zamaren aldetik: nahiko denbora asko behar da web TB bat abian jartzeko (materiala filmatzeko, editatzeko eta argitaratzeko). Alabaina, hausnarketa egiteko aldi baten ondoren, erabaki genuen ezin bideragarriagoa zela, eta aurrera egin genuen.

Alde Zaharreko auzotarrentzat filmatzen dugu, haiek dira gure hartzailerak eta ikus-entzuleak, eta haiena izango da telebistaren ahotsa, elkarrizketen, aurkezpenen, prentsurrekoen... bidez.

Proiektu berri hori martxan jartzen dugunean, *Multimedia Inguruneetako Teknikariak* trebatzeko prestakuntza- eta enplegu-planetako ikasleen presta-

kuntza aberastuko dugu, haiek arduratuko baitira web-gunea dinamizatzeaz eta, hartara, multimedia edukien edizioan eta argitalpenean trebatuko baitira.

## **5.6. Bosgarren mugarría: koordinazio-taldea berregituratzea (2007)**

### **a. Funtzioak berriz banatzea**

Garai hartan, beste pertsona bat sartu zen zentroko koordinatzaile taldean eta, horri esker, koordinazio-taldea berriz berregituratu eta funtzionalago bihurtu genuen. Bi pertsona hasi ziren, batetik, zentroaren dinamizazioa eta, bestetik, Hezigunearena kudeatzen. Funtzionamendua askoz ere eraginkorragoa da hartara, eta horrek bai erabiltzaileengan, bai koordinazio-taldearengan du eragina.

### **b. Hezigunea elkarrekin eta taldeek bakarrik erabiltzea**

Pertsona bakarrak kudeatzen duenez gero Hezigunea, prestakuntzarako eta elkarrekin eta taldeek erabiltzeko bakarrik balia dezakegu eta, hartara, hobeto aprobetxatzen ditugu bai Hezigunea, bai Saregunea. Aldaketaren arrazoa izan zen elkarrekin gero eta gehiago eskatzen zutela Hezigunea eta, horregatik, beharrezkoa zela pertsona bakarra aritzea lanean Hezigunean.

Horri esker, taldeek gehiago erabiltzen dute Hezigunea, eta haiek dira prestakuntzaren eta haien esku dagoen teknologiaren onuradunak. Aldi berean, Saregunea dinamizatzekeo ardura osoagoa izan daiteke, eta, hortaz, arreta handiagoa jar dezakegu orientabideari, prestakuntzari eta abarri buruzko gaietan.

Horren guztiaren ondorioz, osoagoa da zerbitzua, eta ordu gehiago eman ditzakegu prestakuntzarako, erabiltzaileak hartzeko, taldeengana hurbiltzeko... Hobeto aprobetxatzen ditugu Saregunea eta Hezigunea.

## **5.7. Seigarren mugarría: Saregunea 2.0 martxan jartzea (2008)**

### **a. Proiektuaren helburuak berrezartzea**

Pentsatzen hasiak ginen beharbada ez ginela lortzen ari hasiera batetik gure buruari finkatu genizkion helburuak: ez ginen ematen ari gizartea dinamizatzekeo eta kultura arteko bizikidetzak sustatzeko balio erantsia, guk nahi genuena. Gainera, gabeziak sumatzen genituen taldeen koordinazioaren eta lekuen ustiapenaren aldetik. Hori dela eta, hainbat koordinazio-bilera egin genituen,

eta zenbait proposamen egin genituen, zentroaren ikuspegia eta funtzionamendua aldatzeko eta, hartara, hasiera batean ezarri genituen helburuak lortzeko: protagonista eta informazio-sortzaile bihurtzeko ahalmena ematea auzotarrei eta teknologia berriak erabiltzeko aukera gehiago ematea. Izan ere, gure helburua zen pertsonak ordenagailuak erabil zitzaten jakinik bideoak ikusteko eta txatetan hitz egiteko beste gauza batzuetarako erabil daitezkeela.

### **b. Prestakuntza- eta enplegu-programetatik etorritako dinamizatzaileen ordutegia berrantolatzea**

Hiru lanalditan moldatu izan gara orain arte: lehenbiziko txanda 10:00etatik 14:00etara artekoa izan da; bigarrena, 14:00etatik 18:00etara artekoa; eta hirugarrena, 18:00etatik 22:00etara artekoa. Ordutegien antolamendu hori oso ona zen ikuspegi funtzionaletik, baina ez zuen bide ematen taldeak elkarrekin komunikatzeko: talde bat sartzen zenean, bestea irten egiten zen, eta, askotan, sartzen zen taldeak ez zekien zer gertatu zen aurreko txandan. Arazo hori konpontzeko, ordutegiaren egitura horri eutsi diogu, baina bi txanda tartekatuta ditugu, bi taldeen arteko zubi-lana egiteko: txanda bat 11:30etik 15:30era artekoa da, eta bestea, 15:30etik 19:30era artekoa. Horri esker, dinamizatzaileen arteko lokarriak dira lokala tarteko ordutegietan dinamizatzen duten pertsonak.

Ordutegia berrantolatzeari esker, barne-komunikazioa hobetzea lortu dugu eta, gainera, beste bi ordutegi ditugu aukeran, Saregunean lan egiten duten pertsonak lana eta bizitza pribatua hobeto uztartzeko erabil ditzaketenak. Gaur egun, askoz ere aukera gehiago ditugu, ezusteko pertsonalen bat sortzen bada, txanda aldatzeko.

### **c. Erabiltzaileak aplikazio informatiko berri baten bitartez kudeatzea**

Aplikazio informatiko berri bat gehitu berri diogu Saregunearen funtzionamenduari, hobeto kudeatzeko zenbat denboran baliatzen duen erabiltzaile bakoitzak ordenagailua.

Ekipamendua erabiltzeko denbora kudeatzeko arrazoia da adingabe askok (6 eta 7 urteko neska-mutikoe) arratsalde osoa ematen zutela ordenagailuaren aurrean; ez zen batere hezigarria. Gainera, sumatzen genuen nerabe askok ziberkafetegi arruntzat zutela Saregunea, eta horrek kalte egiten ziela beste mota bateko erabiltzaileei: beste zerbait egitera etortzen zirenean, inoiz ez

zuten lekurik, beteta zegoelako beti, eta luzaroan etorri izan ziren erabiltzaile asko etortzeari uzten ari zitzaizkion. Aplikazio berriak hainbat ondorio ditu zentroaren erabiltzaileengan eta funtzionamenduan:

- Begiratzen dugu 16 eta 18 urte arteko erabiltzaileek ordubetez bakarrik erabil dezaten ekipamendua, eta 16 urtetik beherakoek, egunean bi ordu erdiz.
- Azken hiru ordenagailuak haurrik txikienei egokitu dizkiegu, hobeto kontrolatzeko nola erabiltzen dituzten. Hau da, indarkeria ageri duen orri bat edo haien adinari ez dagokion edukia ikusten ari badira, eduki hezigarriagoak ikustera bultzatzen ditugu.
- Erabiltzaileek makinak zenbat denboran baliatzen dituzten kudeatzeko, monitorizazio-sistema bat erabiltzen dugu, eta, horri esker, kontrola alde batera utzi eta beste lan batzuetan aritu daitezke dinamizatzaileak.
- Ikastaroak kudeatzeko modulu bat du aplikazio berriak, eta, horri esker, ikastaroetan izena eman nahi duten pertsona guztien datu-base bat anto-la dezakegu. Horren ondorioz, itxarote-zerrendak 10 pertsonak osatzen dituzte gehienez ere, eta unean-unean jakin dezakegu ikastaro jakin baterako lekurik dagoen.

#### **d. Astelehenetik ostegunerako prestakuntza areagotzea eta ostiralean erabiltzea ordenagailuak nork bere kabuz**


Prestakuntza izateko eskariak gora baino ez du egin abian jarri ginenetik, eta, hori dela eta, eskariari erantzuteko, zentroa honela antolatzea erabaki dugu: astelehenetik ostegunera bitartean prestakuntza ematen dugu etengabe, eta ordenagailuak nork bere kabuz erabiltzeko egunak ostiralak dira. Hartara, ematen ditugun ikastaroen eguneko kopurua handitu dugu: hiru ematen genituen lehen, eta sei ematen ditugu gaur egun. Hasieran, kosta egin zen Interneten ibiltzera zetozenak aldaketa horretara egokitzea, baina, pixkanaka-pixkanaka, onartzen ari direla sumatzen dugu. Izan ere, uste genuen beharrezkoa zela ikastaroen kopurua handitzea: hiruhileko bakoitzeko ikastaroen eskaintzan izena emateko epea hasten zenean, toki guztiak bi edo hiru egunetan betetzen ziren, lantzen genituen alor guztietan. Gure ustez, zentroa antolatzeko modu berri honek hobeto erantzuten die erabiltzaileen beharrei.





## 6. Mugarrien mapa

Urte horiek guztiak laburbilduz, eta bizi izandako berreskuratze-prozesua errazago ulertzeko, mapa bat erantsi dugu jarraian; bertan, gure esperientziaren mugarriak jaso ditugu, bai eta horiei loturiko beste alde batzuk ere. Irakurlearentzako baliagarria izatea espero dugu.





## 7. Kronograma

Beheko kronograman PEF biei dagozkien kontratazio-epealdiak islatu ditugu; gainera, proiektuari koordinatzaile iraunkor berriak gehitu zaizkion uneak ere jaso dira.

2004											
U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
				LEHENENGO PEF. KONTRAT. TEKNOLOGIA BERRIEN APLIK. SOZIALA							
						LEHENENGO PEF KONTRAT. INGURUNE MULTIMEDIAKO TEKNIKARIAK					

ZERBITZUAREN HASIERA


A Koordinatzailea: prestakuntza eta dinamizazioa.

B koordinatzailea: gorabeherak konpontzea eta zentroaren dinamizazioa.

2005											
U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
LEHENENGO PEF. KONTRAT. TEKN. BERRIEN APLIK. SOZIALA			BIGARREN PEF. KONTRAT. TEKNOLOGIA BERRIEN APLIK. SOZIALA								
LEHENENGO PEF KONTRAT. INGURUNE MULTIMEDIAKO TEKNIKARIAK											

C Koordinatzailea: prestakuntza eta Heziguneren kudeaketa. Gizarte perfila ekarpen du.

2006											
U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
BIGARREN PEF. KONTRAT. TEKN. BERRIEN APLIK. SOZIALA			HIRUGARREN PEF. KONTRAT. TEKNOLOGIA BERRIEN APLIK. SOZIALA								
BIGARREN PEF KONTRAT. INGURUNE MULTIMEDIAKO TEKNIKARIAK											



2007											
U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
HIRUGARREN PEF. KONTRAT. TEKNOLOGIA BERRIEN APLIK. SOZIALA				LAUGARREN PEF. KONTRAT. TEKNOLOGIA BERRIEN APLIK. SOZIALA							
				HIRUGARREN PEF KONTRAT. INGURUNE MULTIMEDIAKO TEKNIKARIAK							



2008											
U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
LAUGARREN PEF KONTRAT. TEKN. BERRIEN APLIK. SOZIALA			BOSGARREN PEF. KONTRAT. TEKNOLOGIA BERRIEN APLIK. SOZIALA								
HIRUGARREN PEF KONTRAT. INGURUNE MULTIM. TEKNIKARIAK									LAUGARREN PEF KONTRAT. INGURUNE MULTIMEDIAKO TEKNIKARIAK		

2009											
U	O	M	A	M	E	U	A	I	U	A	A
BOSGARREN PEF. KONTRAT. TEKNOLOGIA BERRIEN APLIK. SOZIALA											
LAUGARREN PEF KONTRAT. INGURUNE MULTIMEDIAKO TEKNIKARIAK											

## 8. Esperientzia, onuradunen ikuspegitik

Ardatza mugatu dugunean azaldu dugunez, ikuspegi honetatik helduko diogu gure esperientziaren sistematizazioari:

*Sareguneak erabiltzaileei, auzoari, taldeei eta erakundeei ekarri dien hobekuntza, proiektuko kide izan garen eta garen pertsonengan oinarritutakoa.*

Hori dela eta, berebiziko garrantzia eman diogu eragileen (alegia, erabiltzaileen, auzoaren, taldeen eta erakundeen) ikuspegia biltzeari. Izan ere, haiek dira Saregunea proiektuaren protagonista nagusiak eta gure ahalegin guztien hartzaileak. Gainera, sistematizazioa interpretatzeko fasea (hau da, ezaguera sortzekoa) arrakasta handiagoaz egiten lagunduko digu esperientziari buruz duten iritziak, kanpo-ikuspegi aberasgarria eman baitigute.

Eragileen ikuspegia biltzeko, hainbat elkarrizketa egin ditugu banan-banan. Askotariko erabiltzaileek baliatzen dute Saregunea, eta mota guztietakoak elkarrizketatzen saiatu gara. Zehazki, pertsona eta onuradun hauek elkarrizketatu ditugu:

- **Erabiltzaile bat.** Prestakuntza-ikastaro orokor bateko ikasle ohia da, erretiroa hartutakoa eta aurrez informatika ez zekiena, eta, gaur egun, ordenagailuak nork bere kabuz erabiltzeko ordutegian jotzen du Saregunera.
- **Prestakuntza- eta enplegu-programa bateko parte-hartzaile bat (1).** 27 urteko gizonezkoa da, eta *Teknologia Berriak Gizartean Aplikatzeko*

*Espezialistak* trebatzeko programan parte hartu zuen. Prestakuntza hasi aurretik, ez zekien informatika, baina, gaur egun, informatikako goi-mailako ziklo bat egiten ari da.

- **Prestakuntza- eta enplegu-programa bateko parte-hartzaile bat (2).** 27 urteko emakumezkoa da, errumaniarra. Bi urte darama Gasteizen eta, *Teknologia Berriak Gizartean Aplikatzeko Espezialistak* trebatzeko prestakuntza- eta enplegu-programan parte hartzeari esker, lan-baimena eskuratu zuen.
- **Prestakuntza- eta enplegu-programa bateko parte-hartzaile eta HIRUDESIGN enpresaren sortzaile bat.** Enpresa sortu berria da HIRUDESIGN, diseinu grafikoan eta web-orrien garapenean aritzen dena. Prestakuntza- eta enplegu-programa bateko hiru parte-hartzailek eratu zuten, eta Saregunearen babesa eta aholkularitza izan zuten horretarako.
- **Arabako Hiesaren kontrako Batzordea.** Elkarte aitzindaria da hiesa duten gaixoak zaintzen. Duela 20 urte sortu zen eta, egun, gizarteari GIBari buruzko informazioa ematen eta haren kontzientzia harrarazten lan egiten du, infekzioaren prebentzioan eta seropositiboak eta egoera txarrean dauden biztanleriaren sektoreak laguntzen.
- **Kultura Herrikoien eta Helduen Sustapenerako Arabako Zentroa.** Irabazi-asmorik gabeko fundazioa da, eta Arabako Lurralde Historikoan lan egiten du, emakumeak sustatzeko gizarte- eta kultura-proiektuak eta prestakuntza- eta lan-proiektuak egiten.
- **Kaleko hezitzaile bat.** Zabalgunean eta Alde Zaharrean lan egiten du, 10 eta 18 urte bitarteko gazteekin eta haien inguruneekin.
- **Gizarte-zerbitzuak.** Gasteizko Udaleko gizarte-langileak dira, eta zuzeneko harremana dute Saregunearekin.

## 8.1. Saregunearekiko lehen harremana

5. atalean (*Esperientzia berreskuratzea* atalean) azaldu dugunez, gure funtsezko arduretako bat izan zen gure burua ezagutaraztea, gure burua ikusaraztea eta inguruko beste elkarte batzuekiko harreman-sarea sortzea. Alde horretatik, bereziki interesgarria iruditu zaigu jakitea nola eta zergatik etorri ziren gugana hartzaileak eta zer arrazoik bultzatu zituzten gu bisitatzera.

Erabiltzaile honen ekarpenak hasieran Sareguneak hartzen duen lokalaren kanpo-itxuraren inguruan genuen asmoa berretsi du. Izan ere, oso garbi genuen lokal ireki eta argitsu bat nahi genuela, itxura ona emateko eta jakin-mina pizteko, sartzeko gogoia pizteko aurretik igarotzen zirenen artean.

#### ERABILTZAILE BAT

Nola izan zenuen Saregunearen berri?

Kalean nenbilela, ordenagailuak zeudela ikusten nuen, bezala jendea gauzak egiten, eta galdetzeraz sartu nintzen, zer zen jakiteko. Hastapenei buruzko ikastaro batean onartu ninduten, eta zera esan nion nire buruari: “Ea zer gertatzen den”.

Nork bultzatu zintuen izena ematera?

Nik neuk. Erretiroa hartu nuenean, uste nuen ezer egin gabe eman nezakeela denbora, baina ezetz ohartu nintzen, zerbait egin behar nuela: ingelesa ikasten hasi nintzen, ordenagailuak erabiltzen, eta, ondoren, abesbatza batean sartu nintzen [...]. Hasieran, teknologia berriei men ez egiteko asmoa nuen: sakelakoari, ordenagailuari eta abarri. Pixkanaka, baina, ohartu naiz jakitea ez dagoela sobera. Oso gauza praktikoak dira, jende guztiak erabiltzen ditu, eta, nolabait, ez nuen atzean gelditu nahi. Aurrera egiteko gogoia nuen nolabait, eta hasi egin nintzen. Hastapenei buruzko ikastaroa egin nuen. Ikastaroari esker, jendea ezagutu nuen eta, posta elektronikoaren bidez, harekin harremanetan hasi nintzen.

Halaber, oso garrantzitsua izan zen aurkezpen-gutunak igortzea, elkarteak zuzenean bisitatzea, harreman informalak sortzea... Saregunea eta zerbitzua ezagutarazteko. Lan horrek berehala eman zituen fruituak eta, pixkana-pixkana, gure burua inguruko elkartearen artean ezagutarazi genuen eta gure zerbitzuak erabiltzera gonbidatu genituen. Oso irekiak izan ziren hasieratik, eta ez zuten izan dudarik gure instalazioak eta gure prestakuntza-proposamenak erabiltzeko.

#### ARABAKO HIESAREN KONTRAKO BATZORDEA

Nola jarri zineten Saregunearekin harremanetan, nola izan zenuten haren berri, zergatik erabaki zenuten haren zerbitzuak erabiltzea...?

Alde Zaharrean bertan dago Saregunea; hau da, auzoan bertan. Berehala eman zuen bere burua ezagutzera, eta berehala piztu zuen gure interesa, ikasteko, irakasteko eta abarretarako zentroa den aldetik. Berehala jakinarazi genien gure erabiltzaileei informatika oro har ikasteko baliabide bat zegoela hemen. Uste dut hona iritsi zen gutun bati esker jakin genuela Saregunearen berri, edo are posta elektronikoaren bidez; ez nago ziur.

#### KULTURA HERRIKOIEN ETA HELDUEN SUSTAPENERAKO ARABAKO ZENTROA

Saregunearen berri jakin genuen, batetik, guztiok asko ibiltzen garelako Alde Zaharrean gora eta behera eta ikusi egin genuelako eta, bestetik, Saregunearen beraren ekimenez. Gogoan dut uda batean etorri zirela zentro hori zegoela esatera, eta azaltzera zertan zetzan proiektua eta nola erabil genezakeen. Orduan, zentrorra joan ginen, eta arduradunekin hitz egiten aritu ginen eta haiekin lanean hasi ginen pixka bat. Haien eskaintza zer-nolakoa zen argitu ziguten, eta zer talde genituen jakinarazi genien guk. Emakume taldeei zentrotik ateratzeko, han egoteko, beste giro batean egoteko aukera, bada, itzela zen.

Nolanahi ere, ez gaitu guk gure burua ezagutarazteko egin dugun lanak bakarrik ezagutarazi. Aitzitik, behar teknologikoen arabera, interes komunak dituzten taldeak sortzen dira, eta gizarte-ekimen batzuk eta besteak hurbiltzeko eta elkarlanean aritzeko bide ematen dute taldeok. Hartara, auzoan lan egiten duten beste pertsona eta talde batzuen ekimenez beraiek eta sinergiak sortzeko ekarri du ezagutu eta onetsi egin gaitzaten.



**KALEKO HEZITZAILE BAT**

Aldaketa prozesu horren guztiaren barruan [azken urteetan auzoan jazotako aldaketa-prozesuaren barruan], gizartea zatitzeko prozesuarekin batera, teknologia berrien erabileraren, eten digitalaren, alfabetatze digitalaren, teknologia berrien bidezko parte-hartzearen eta prestakuntzaren hazkundera jazo da. Campillo Kultur eta Kirol Elkartearekin elkarlanean aritzen nintzen ni eta, haren babesari esker, kirol-egitura bat sortzen hasi zen gizarte-zerbitzuen esparruan [...]. Orduan, uste genuen abantailak zituela kirolak: beste guztiaren aldean, mugimenduari ematen dio lehentasuna, eta, horren ondorioz, gaztelaniaz ez dakienak ere berdin-berdin parte har dezake; agiririk ez duenak ere berdin-berdin parte har dezake; etab. [...]. Kirol-jarduerak finkatu-edo egin genituenean, pentsatu genuen gauza bera egin genezakeela Internetekin eta alfabetatze digitalarekin [...]. Ordenagailuak dohainik lortu beharra genuen, eta, orduantxe, Barrenkale auzo-elkarteak jakinarazi zigun Sarturekin lotutako jendea antzeko proiektu bat lantzen ari zela ordurako. Oraindik ez zegoen abian, baina, nolana-hi ere, horrela izan nuen nik Saregunearen berri [...]. Proiektua azaldu ziguten, eta software librea erabiltzeko asmoa zutela ikusi genuen. Ikuspegi ideologikotik, bat zetorren hori gure ikuspuntuarekin. Helburuen eta baliabideen artean koherentzia zegoela ikusi genuen.

Bestalde, gizarte-zerbitzuekiko koordinazioa funtsezkoa da erabiltzaile berriak eta prestakuntza- eta enplegu-programetan parte hartzeko hautagaiak erakartzeko. Gure inguruan egoera sozial zailean dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuekin batera lan egin nahi dugu, haiek osatzeko, eta gizarte-zerbitzuek laguntzen dituzten eta prozesuren batean parte hartzeko hautagaitzat proposa ditzaketen hainbat pertsonaren egoera hobetzeko aukerak ematen ahalegintzen gara.

**PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU PROGRAMA BATEKO PARTE HARTZAILE BAT (1)**

Bada, txo, eraikuntza-enpresa batean lan egiteari utzi nion. Hiru urte eman nituen han, eta nire kabuz bizi nintzen. Langabezia-saria amaitu zitzaidan, eta gizarte-laguntzak eskatzen hasi nintzen. Aldabe gizarte-etxeko gizarte-laguntzaileak bazuen Saregune proiektuaren eta garai hartan proiektuaz arduratzen ziren pertsonen berri. Nik ere aldatu nahi nuen esparruz; banekien zertan zetzan eraikuntza, eta saiatu egin nahi nuen behintzat. Orduan, Saregunean informatikari buruzko prestakuntza- eta enplegu-kontu bat sortu zutela jakinarazi zidan eta...

Prozesuren batean parte hartzeko hautagaiak nola aukeratzen dituzten eta Saregunearekin nola koordinatzen diren azaldu digute gizarte-zerbitzuek.

#### GIZARTE ZERBITZUAK

Hasiera batean, erabilera ez zen oso sistematikoa izan, bakarkakoa baizik: zentroaren eta ematen zuen zerbitzuaren berri ematen genien erabiltzaileei eta aholkatu egiten genituen. Geroago, lankidetzan sistematikoagoa izaten hasi zen. Baliabidea sortu zenean, jarraipen-batzorde bat eratu zuen Udalak, hauek osatutakoa:

- Tokiko lan-taldeak (Udaleko gizarteratze-zerbitzuetako teknikariek).
- Tokiko koordinatzaileek, kirol-koordinatzaileak eta kultura-teknikariak.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako ordezkariak.

Kasu bat Saregunera bideratu ala ez erabakitzeko, hautagaiaren ezaugarriak ebaluatzen ditugu:

- Langabezian egon behar du.
- Gaztea izan behar du.
- Aurrez adierazi behar du teknologia berriekiko interesa.

Hainbatetan, Sareguneak berak egiten digu eskaria aurrez.

Sarturen irudi ona bera, gizarte-ekintzaren esparruan erreferente izatea eta jende asko gugana bere ekimenez etortzea ere Saregunearen erakargarria da. Gainera, zentrorantz etortzen diren pertsonen artean irudi ona uzten saiatzen gara, eta erabiltzaile berriak erakartzeko oso modu ona da hori, baita erabiltzaileek Saregunea ahotan ibiltzea ere.

#### HIRUDESING

Dinamizatzaileak trebatzeko prestakuntza- eta enplegu-plan batean zebilen lagun baten bidez izan nuen Saregunearen berri. Diseinu grafikoa ikasi dut, Arte Aplikatuaren Eskolan, eta *Multimedia Inguruneetako Teknikariak* trebatzeko prestakuntza- eta enplegu-plan bat sortu zutela ohartarazi zidan. Nolabait, horren zain nengoan: praktikak amaitzean, zura eta lur gelditu nintzen Gasteizko agentzietako lan-baldintzekin.

Laburbilduz, hauek har ditzakegu inor Saregunera etortzeko eta gure proiektuan parte hartzera animatzeko arrazoitzat:

- Lokalaren kanpo-itxura.
- Zentroa inguruko elkarteen eta taldeen artean ezagutaraztea.
- Interes komunei erantzutea.
- Gizarte-zerbitzuekiko koordinazioa.
- Sarturen irudi ona.
- Erabiltzaileen ahotan ibiltzea.

## 8.2. Saregunearikiko nire esperientzia. Zertarako erabiltzen dut?

Hainbat modutan balia dezakete erabiltzaileek Saregunea: ordenagailuak beren kabuz erabil ditzakete horretarako ordutegian; prestakuntza- eta enplegu-planetan parte har dezakete; Hezigunea erabil dezakete, taldeka; etab.

Erabiltzaile honek zera nabarmendu du: ordenagailuak bere kabuz baliatzea eta prestakuntza-ikastaroa eman zioten langileak eta Saregunekoak berberak izateak hura erabiltzeko izan duen eragina. Zehazki, Interneten ibiltzeko eta, posta elektronikoa bidez, zentroaren beste erabiltzaile batzuekin harremanetan egoteko erabiltzen ditu nagusiki Sareguneko instalazioak.

### ERABILTZAILE BAT

Gaur egun, nola edo zertarako erabiltzen duzu Saregunea?

Amaitu nuenean, bi edo hiru egunean behin, ordubetez praktikatzera joaten nintzen; denbora hori uzten zidaten. Duda edo eragozpenen bat banuen, han zeuden neskei galdetzen nien; haiexek eman zidaten ikastaroa. Nahiko onuragarria izan zitzaidan, are gehiago ikastaroan irakasle izan nituenekin elkartzea [...]. Nire ustez, garrantzitsuena izan zen mezu elektronikoa ondo idaztea, eta ikastaroan nirekin ibili zirenekin harremanetan jartzea eta, harremanari esker, lagunak egitea.

Badut ordenagailua, baina oso zaharra da, eta ez dut Internet. Beraz, ezin dut ezer egin. Baina ez dut nahi, eta nahiago dut beste zerbaitean gehiago gastatu. Saregunek nire beharrei erantzuten die.

Beste erakunde batzuek egiten duten heziketa-lana osatzeko prestakuntzarako baliabidetzat ere har daiteke Saregunea. Kultura Herrikoien eta Helduen Sustapenerako Arabako Zentroak, adibidez, eskolan lantzen dituen gaiei buruz Interneten informazioa bilatzea ezarri du eguneroko heziketaren barnean, ezagueren jabeakuntza dinamiko eta autonomoagoa izan dadin, eta, alde horretatik, alde sumatu du emakume gazteez eta helduez osatutako taldeen artean: neska gazteak ohituta daude ordenagailuekin; emakume helduek, berriz, zailtasunak dituzte teknologia berrien esparruan.

#### KULTURA HERRIKOIEI ETA HELDUEN SUSTAPENERAKO ARABAKO ZENTROA

Gaur egun, nola edo zertarako erabiltzen duzu Saregunea?

Internet oso erakargarria da, asko atsegin dute bilaketak egitea eskolen amaieran... Batzuetan, eskolan ematen duguna Saregunearen erabilerarekin lotzen saiatzen gara. Horretarako, Interneten bidez erantzuteko galderatxo batzuk ematen dizkiegu, eskolan landu dugun zerbaiten bilaketa aktiboa egiteko. Gazteek izan dute harremanik aurrez informatikarekin, teklatura erabiltzearekin eta abarrek. Alde horretatik, zailtasun gehiago daude emakume helduen taldeekin. Nolanahi ere, Saregunearen magia, neurri batean, eskolen dinamizazioan eta arretan datza: bi pertsona egotean ikasgelan jendea laguntzen... Hasieran, software libreak ikaratu egiten du pixka bat, ezberdina delako eta formatua pixka bat ezberdina delako ohikoaren aldean, baina, ondoren, berdina edo antzekoa da dena...

Saregunearen askotariko erabileren adierazgarri berezia da Arabako Hiesaren kontrako Batzordearen ekarpena. Lehenik eta behin, Saregunera beren kabuz, Alde Zaharreko edozein biztanle balira bezala joatera bultzatzen ditu erabiltzai-leak: ez da aritzen bitarteko, eta, interesa badute, Saregunera joateko autonomia ematen die zerbitzua erabiltzen duten pertsoneri. Izan ere, Saregunea ikastaroetan parte hartuz erabiltzea prestakuntzaren osagarri interesgarria izan daiteke, eta tresna informatikoetan trebatzen direnen lan-aukerak hobetu ditzake. Ildo horretan, Batzordeak azaldu digu harrera-etxe batean bizi den pertsona bat kontratua egiteko fasean dagoela gaur egun, prestakuntza- eta enplegu-programa batean parte hartu izanari esker.

### ARABAKO HIESAREN KONTRAKO BATZORDEA

Zertarako erabiltzen duzue Saregunea, zer proiektutan hartzen duzue parte, zer egiten duzue haiekin?

Zentro bat dagoela jakinarazten diegu guztiei [elkartearen erabiltzaileei], erabili egin daitezkeen ordenagailuak dituen, jendea hartzeko prest dagoena eta ikastaroak antolatzen dituen. Hau da, tresna informatikoen oinarrizko funtzionamendua ez dakiten pertsonak joan eta prestatu egin daitezke. Beren kabuz, auzotar diren aldetik, zentroa bitarteko aritu gabe joatera bultzatzen ditugu, baina prestakuntza-prozesu batean dauden erabiltzaileak bereziki bultzatzen ditugu Sareguneko ikastaro bat egitera.

Bi bide bereiz ditzakegu. Batetik, begiraleen laguntzaz, ordenagailuak nork bere kabuz erabiltzeko zentro ireki bat da Saregunea. Bestetik, prestakuntza-bidean dauden eta lan egitea espero dutenei interesgarri izan dakieke edozein lanpostutan (denda batean, biltegi batean eta abarretan) ezinbestekoak diren oinarrizko tresna informatikoak erabiltzen ikastea. Halaber, bada are gehiago espezializatzen denik ere.

Bada Saregunea erabiltzeko beste modu bat. Urtean behin edo bi urtean behin, prestakuntza- eta enplegu-programak edo antolatzen dituzte. Harrera-etxearen erabiltzaile batek lan-kontratua du egun. Hau da, prestakuntza amaitu zuen eta kontratua egin zioten. Hasiera batetik adierazi zuen informatikarekiko interesa eta, azkenerako, oso argi zuen prestakuntza.

Bada modu esanguratsuago batean erabiltzen duenik ere. Izan ere, laguntzen ditugun erabiltzaileen artean erdia atzerritarrak dira, eta oso garrantzitsua zaie posta elektronikoa erabiltzea eta senideekin komunikatzea. Bada web-cama erabiltzen duela esan digunik. Oso garrantzitsua da komunikatzeko modu hori erabiltzen ikas dezaten. Gainera, ondoren, Saregunean zerbait ikasi ostean, beste baliabide informatiko batzuk erabil ditzakete, hala nola gizarte-etxeetan eta mintzalekuetan. Familiekiko komunikazioaren alderdia oso garrantzitsua da.

Kaleko hezitzaile honen ikuspegiak Saregunek hezkuntzan eta gizartean duen eragina nabarmentzen du, pentsatzekoa denez. Lehenik, halako erabile-ra norberaren kasako eta informala proposatu du, kaleko hezitzailea den aldetik, hobeto ezagutzeko harekin lan egiten duten gazteak. Halaber, Saregunek gizartean duen eragina ere hartu du kontuan, eta proiektuak auzoan duen eragina azpimarratu du. Gainera, eduki teknologikoa hezkuntza-prozesura egokitzeko aukera nabarmendu du, elkar elikatzen baitute prozesu horretan.

## KALEKO HEZITZAILE BAT

Zehatz-mehatz, nola edo zertarako erabiltzen duzu Saregunea?  
Nagusiki, lau aldetatik joaten naiz ni Saregunera.

1. Saregunera joaten diren gazteekin lan egiten dut eta, hortaz, ni ere joaten naiz, haiekin egoteko eta haien portaeraren eta harreraren berri izateko. Batzuetan, Saregunetik bertatik deitzen didate, mutil jakin batek kezkatu egiten dituelako.
2. Komunitatearen ikuspegitik, Hezigunearen taldekako erabilera proposatzen du Sareguneak, komunitatearentzako eta auzotarrek parte hartzeko erabilera. KZ-Gunearen antzekoa da, baina malgua eta egokitua, eta beste pertsona mota batzuk prestatzen ditu eta beste planteamendu bat du teknologiari buruz. Jarduera, ekitaldi, jaialdi... bat antolatzeko, Heziguneari esker, auzoan eragin handiagoa duten gauzak proposa daitezke.
3. Taldearen ikuspegitik da, gure ustez, Saregunea indartsuen. Eduki teknologikoen ikaskuntza prestakuntza-prozesura egokitzeko bide ematen digu, eta, hartara, didaktikoki antolatzen dugu elkarrekintza informatikaren esparruan eta nork bere ingurunean. Saregunean lan egiten duten teknikarien laguntzaz egiten dugu hori guztia; ez bagenu izango, ezinezkoa litzateke. Gainera, oso malgutasun handia eta egokitzeko oso gaitasun handia dute.
4. Neuri dagokidanez, informatikak zer aukera ematen dituen jakiteko balio izan dit, eta elkarrekin aurrera egitea, elkarrekin ikastea ekarri du horrek. Hau da, teknologia berriek hezkuntzan zer aukera ematen dituzten ikasi dut nik, eta informatika-ezagueria guztiak hezkuntzarako nola erabili ikasi dute haiek.

Zentroko prestakuntza- eta enplegu-planek hezkuntzan ematen dituzten aukerak ere azpimarratu ditu, baita Saregunean parte hartzeko aukerak haren lanari ematen dion sinesgarritasuna ere.

**KALEKO HEZITZAILE BAT**

Izan ere, prestakuntza- eta enplegu-programa bat motibazioa pizten duen gai bati buruzko prestakuntza da, bestela nekez eskura daitekeen teknologia batean trebatzen du eta lan-kontratua egiteko eta dirua irabazteko bide ematen du. Gainera, ikuspegi ideologikoa bat dator gure planteamenduarekin. Hori dela eta, nik eta gazte horrek hezkuntzaren esparruan dugun harremana sendoagoa da; nigan sinesten du, eskaintzen diodana gauzatu egiten dela. Hark ez ezik, baita haren ezagunek ere. Zera diote: “Urliari lana aurkitzen lagundu dio honek. Lan-kontratua du...”.

Zerbitzua erabiltzeko modu horiek guztiak proiektuaren aberastasunaren, bizi-tasunaren eta dinamismoaren adierazle dira. Gainera, ez dira estatikoak; aitzitik, etengabe aldatzen eta bilakatzen ari dira, eta, ildo horretan, gure ezaugarri bihurtu nahi ditugu malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna. Horretarako, inguruko proposamenak onartzeko prest egon behar dugu beti, eta arreta jarri behar dugu zer aldaketa jazotzen diren inguruko gizartean.

**8.3. Sareguneak pertsonarengan duen eragina**

Oso argi dugu Saregunera joateak gugana etortzen den pertsona aldarazi behar duela eta, horregatik, edozein lanpostutan behar diren hainbat gaitasun eta jarrera hobetzeko lan egiten dugu.

Gure proiektuan parte hartuz, autoestimua eta gizartearen onespina, besteak beste, nabarmen hobetzen dira. Alde horretatik, gure helburua da pertsonen rol berriak betetzea, alde batera uzteko inguruak haietako asko sailkatzeko erabiltzen dituen etiketak eta estereotipoak eta baliagarri eta komunitatearen lagungarri bihurtzeko. Hartara, nor bere buruaren irudi on eta errealista izateko gaitasuna eta jarrera garatzen dute.

### KALEKO HEZITZAILE BAT

Interesgarria da egoerak eta gauzak hautemateko moduak aldatzeko ere. Adibidez, hainbatak *Doña Rogelia* esaten zioten neska bati, mespretxuz, maro-koarra zelako eta egun osoan zapia buruan zuela zebilelako. Bada, gaur egun, ordenagailuak erabiltzen daki pertsona horrek, dirua irabazten ari da, lan-kontra-tu bat du eta men egin behar diote Sareguneke ordenagailuak erabiltzeko [...].

Orain, haiekin gaudenean, harreman pertsonala eta, hortaz, haien hezkuntzan eragina izateko aukera asko hobetu da, eta sumatzen da aldaketa izan dela haien baitan ere. Baztertuta gelditzeko arriskuan edo baztertuta dauden herritar-reez ari gara, eta errespetatu izanak, kontuan hartu izanak, onetsi izanak... beren denboran eragina duten herritar direla sentiarazi die. Estimua, segurtasuna hobetu dira. Batez ere, gauzak hautemateko modu subjektiboa aldatu da: bada Saregunetik joan eta, objektiboki, egoera kronikoan jarraitzen duenik, diru-laguntzen mendean jarraitzen duelako edo familiarrean egoera txarrean dagoelako, baina gizarteratuago eta bere denboraren jabeago sentitzen da.

Ildo horretan, ekarpen honek iradokitzen du zenbateraino den lagungarri Saregunea berriz gizarteratzen saiatzen ari diren eta horretarako laguntza behar duten pertsonen ikuspegitik. Izan ere, Saregunean nola edo hala parte hartzen duten asko eta asko gizarteratze-bideak egiten ari dira, gizarte-zerbitzuen edo gizarte-ekimenaren esparruko beste erakunde batzuen bidez.

### ARABAKO HIESAREN KONTRAKO BATZORDEA

Nire ustez, dena dago lotuta, dena zaio baliagarri espetxean dagoen pertsona bati: komunitatean dagoen harrera-etxe batera irtetea; informatika-zentro batera joatea, ikastaro bat egitea eta ordutegi jakin batzuk errespetatu behar izatea; akaso, hori guztia gaztelania ikastearekin edo hobetzearekin uztartu behar izatea, edo soldatzaile edo biltegizain edo dena delakoa izateko ikastaro batekin; etab. Zentroan irakasleekin sortzen dituen giza harremanak, ordenagailuen funtzionamenduari buruzko oinarrizko ezagueraz jabetzea... Hori guztia espetxeak hausten duen gizarte-sare bat berreskuratzearekin lotuta dago. Izan ere, erabateko desgizarteratzea eragiten du espetxeak, eta zera landu behar da: normalizazio-bidearen hasierara itzultzea. Alde horretatik, giza harreman horiek guztiak funtsezkoak dira gizarte-sarea berreskuratzeko. Ez da ohikoa espetxe-tik ateratzen den norbaitek lan-munduan sartzeko aukera izatea. Aurrez, hainbat urrats egin behar dira, eta Saregunean parte hartzeak urratsok egiten laguntzen du.



Bestalde, gure proiektuaren bidez (bereziki, prestakuntza- eta enplegu-planen bidez), prestatzeko eta lan egiteko aukera berriak eman nahi ditugu, erabiltzaile askok kontuan hartu ere egingo ez zuketean sektore batean. Lan-esperientzia atsegingarria eman nahi dugu, lanaren beste ikuspegi bat emateko eta, planteamendu berrietan oinarrituz, lan egiteko beste aukera batzuk bilatzen laguntzeko.

#### HIRUDESING

Nolabait, horren zain nengoen: praktikak amaitzean, zur eta lur gelditu nintzen Gasteizko agentzietako lan-baldintzekin. Aukera zegoen egonkortasunik gabeko kontratu bat egiteko. Izan ere, gaur egun, hainbat agentzia oso sendoak dira, haiek agintzen dute denetan eta lanaldi etenaren trukean 600 euro ordaintzen dioten jendearen lepotik bizi dira. Eta onartu egin behar dugu. Hori ikusirik, beste zerbait ikasten jarraitzea pentsatu nuen, prestakuntza osatzeko, baina inoiz ere ez zitzaidakeen bururatuko enpresa bat antolatuko nuenik. Orduan, ez nekien zer egin... Ferminekiko elkarrizketara joan nintzen, nire ibilbideaz mintzatu ginen pixka bat, eta onartu egin ninduen. Arte-eskolako beste mutil bati alpatu nion, eta hura ere onartu zuten. Orain, nire enpresako bazkidea da; hau da, institututik ezagutzen dut bazkidea. Neska talde batek enpresa bat sortu zuela ikusi genuen, eta animatu egin ginen. Gaur egun, Sareguneko ikaskideetatik hiru gara bazkideak. Hasiera batean, lau izatea aztertu genuen, baina batek lana aurkitu zuen eta ez zuen parte hartu enpresaren sorreran.

#### PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU PROGRAMA BATEKO PARTE HARTZAILE BAT (2)

Errumaniarra naiz eta, Saregunek kontratua egin zidala-eta, lan egiteko baime-na lortu nuen, eta nire egoera arauzkoa zen nolabait [...]. Bada, pixka bat latza izan zen, hizkuntzaren ondorioz batez ere, ez beste arrazoiren baten ondorioz, baina, pixkanaka-pixkanaka, ikaskideen laguntzaz, lortu nuen. Ikaskideekiko harremana oso ona zen. Are gehiago, elkar ikusten dugu orain, eta oso lagun on bat dut. Antzeko ibilbidea egin dugu, ados jarri gabe. Saregunean bertan ezagutu nuen. Gizarteratzea ikastea erabaki zuen hark, nirekin hitz egin zuen eta animatu egin ninduen, eta Gasteizko San Frantziskon gabilta.

Saregunera etortzeak ikaskuntza normalizatura itzultzea ekarri du nahikotxotan. Eskolan porrot egindako pertsonak ziren erabiltzaileak, ez zuten batere itxaropen eta konfiantzarik hezkuntza-sisteman, baina prestatzeko aukera berriak eman dizkiegu: autoikaskuntza lagundua, etengabeko prestakuntza eta teknologiei buruzko etengabeko ikaskuntza. Alde horretatik, garrantzitsua da nor gaitasun eta abilezia berriez jabetzea, hala nola jendaurrean lan egitekoaz, talde-lanean aritzekoaz, irakastekoaz...

#### PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU PROGRAMA BATEKO PARTE HARTZAILE BAT (1)

Garai batean, 16 urte nituela, erdi-mailako igeltserotza-ziklo bat egin nuen. Eraikuntzan ibili nintzen gero, eta langabezian ondoren. Saregunera etorri aurretik, ez nuen pentsatu informatikan inolaz ere, are gutxiago jendaurrean [...].

Amaitzean [prestakuntza- eta enplegu-programako prestakuntza], informatikako erdi-mailako ziklo batean izena eman nuen, txo, eta, egia esan, oso gustura ibili nintzen. Bi urte iraun zuen, eta goi-mailakoa egiten ari naiz orain. Ikasten dudan artean, ez nago lanean; tira, batzuetan, zerbitzari ibiltzen naiz lagun baten tabernan, baina ez dut ganorazko lan-kontraturik. A! Eskolak ematen ari naiz ikastaro bat gainditu ez duten erdi-mailako zikloko ikasleei; urtebetean gainditu behar dute, eta azterketa egin. Bi ordu ematen ditut, ostegunetan.

### 8.4. Sareguneak auzoan izan duen eragina

Gure ustez, Saregunearen alderdirik garrantzitsuenetako bat da auzoko gizartearen bizitza dinamizatzen duela edo dinamiza dezakeela. Izan ere, Alde Zaharreko pertsonekin Alde Zaharraren onerako eta Alde Zaharraren egoeran oinarriturik ematen dugun zerbitzua da.

Auzoko zenbait leku degradatuta daude, eta bai merkataritzaren, bai gizartearen esparruko jarduna gainbehera etorri da. Hori dela eta, beharrezkoa da pertsonen arteko elkarrekintzari bide emateko proiektuak sortzea, harreman berriak sortzeko auzotarren artean. Hartara, aurrea har diezaiekegu gizartegatazkei.

**ARABAKO HIESAREN KONTRAKO BATZORDEA**

Eta auzoari dagokionez, zure ustez, izan al du nolabaiteko eraginik Sareguneak?

Bai. Alde Zaharrak mugimendua behar du. Zati batzuk, tira, ez daude gizartetik baztertuta, hain zuzen ere, baina badago egoera horretan erotzeko arrisku handia. Nire ustez, komunitateari baliagarri zaizkion baliabideak sortzea, prestakuntzaren, hezkuntzaren eta trebakuntzaren alorrean batez ere, funtsezkoa izango da auzoan. Adibidez, lehen aipatu dizudan erabiltzailearengan: prestakuntza- eta enplegu-programan parte hartu zuen eta kontratua du orain. Atzerritarra da, auzotarra; ezagutzen du ingurunea. Badira auzotar batzuk parte hartzeko uzkurragoak, eta zentrora etor daitezen lagundu dezake horrek. Nire ustez, funtsezkoa da alde Zaharrean.

**KULTURA HERRIKOIEI ETA HELDUEN SUSTAPENERAKO ARABAKO ZENTROA**

Esan didazunez, nahiko ondo ezagutzen duzu Alde Zaharra. Zure ustez, Sareguneak nolabaiteko eragina izan du Alde Zaharreko bizitzaren dinamizazioan ala, aitzitik, hiriko barruti honek lehen bezala jarraitzen du?

Motel! Oso dinamizazio-elementu garrantzitsua izan da. Aukera bat da jende askoren ikuspegitik, bilgune bat da. Nire ustez, ekarpen handia egiten ari da. Alde Zaharra bazterketa-egoeran edo egoera horretan egoteko zorian dagoen jende asko metatzen ari da. Saregunea izateak normalizazio handia dakar, beste itxura bat ematen dio Alde Zaharrari: lokala bera modernoa da, begirada erakartzen du... Gainera, beren etxekoekin, herrialdekoekin komunikatzeko lokal bat dute atzerritarrek. Nire ustez, oso garrantzitsua da hain ideia berritzaileak Alde Zaharraren antzeko lekuetan sortzea hain zuzen ere. Alde Zaharreko auzotar guztiek oso ondo ezagutzen dute jadanik Saregunea, eta oso euskarri onuragarria iruditzen zait.

Bestalde, auzoko bizitza kulturala sustatu nahi dugu eta, horretarako, antolatzen dituen ekintzak ezagutarazten laguntzen diogu gizartearen barneko eta auzotarren arteko bilbeari, tresna informatikoak erabiltzen utziz. Estaldura informatikoa eman nahi diegu auzoan sortzen diren talde berriei, informatikarekin lotutako kultura-proposamenak egin ahal izan ditzaten. Alde horretatik, adierazgarria da prestakuntza- eta enplegu-plan batean hartu parte hartu zuen gazte honen hausnarketa.

### PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU PROGRAMA BATEKO PARTE HARTZAILE BAT (1)

Izan al du Saregunea Alde Zaharrean kokatzeak nolabaiteko eraginik auzoan?

Nire ustez, ona. Arraioa, Alde Zaharreko neska-mutil pila bat joaten dira. Gainera, batzuek talde bat eratu dute, rapa egiten ari dira eta... Azken batean, etxetik dator nor, ez du dirurik, ez du Internet... Badaki leku bero bat eta Internet duela hor, etab. Gainera, ideiak bururatzen bazaizkio, haiek gauzatzen uzten diote edo lagundu egiten diote: filmatu egin nahi badu, kamera uzten diote. Adibidez, rap-taldekoak arabiar lagun talde batekoak dira guztiak, eta bazterrak nahasten ibiltzen ziren lehen, baina bideratu egin dituzte eta...

Eta zer dio auzoko jendeak?

Ezer ez, tira, denetarik... Batzuk txundituta gelditzen dira; kanpotik igarotzen dira eta zera diote: "Zer da hau, baina?". Ez dute ikusten espainiarrik, eta lotsatu egiten dira, zaharrak batez ere. Gazteei asko gustatzen zaie; gainera, software librea erabiltzeaz gain –adierazgarria da hori–, doakoa da. Nik ezagutzen dut Saregunera joaten den hemengo jendea.

## 8.5. Aniztasuna

Saregunearen ezaugarrietako bat kultura-aniztasuna da. Aurreiritziak eta este-reotipoak desagerrarazten saiatzen gara Saregunearen barnean, gure gizartean erroto ez daitezen, eta, hartara, gizarteko beste esparru batzuetan oraindik sortu ez diren egoerak ditugu. Esaterako, emakume latinoamerikar katoliko bat eta emakume marokoar musulman bat ditugu, biak batera gizonezko marokoar musulmanei eskolak ematen.

Egin ditugun elkarrizketek ere adierazten dute aniztasun hori. Oro har, Saregunearen alde ontzat dute erabiltzaileek, eta zentroko jardunaren aberasgarritzat, baina hainbatetan zailtasunak daudela sumatzen da, hizkuntza dela eta adibidez.

**ERABILTZAILA BAT**

Sareguneko irakasle gehienak atzerritarrak dira, eta batzuek ez dute eskolak gaztelaniaz emateko adinako maila. Ikasten ari den pertsona batek gauzak argi azal diezazkieten behar du. Borondate handia dute eta oso ahalegin handia egiten dute, eta miresgarria da zer-nolako ahalegina egiten duten, baina batzuek gabeziak dituzte alde horretatik. Jarrera, baina, ezin hobea da. Gogoan dut lehen mailan test bat egin zigutela eta nik ez nuela ikusten alde txarrik. Beren burua ulertarazteko duten gogoia eta horretarako egiten duten ahalegina bera goresgarria da. Nahiago nuke horrelakoa banintz!

Azterritarrak joaten dira batez ere Saregunera, eta zuriok, edo bertakook, ez gara joaten, Baina oso-oso gustura ibiltzen naiz: pozik nago haiekin, eta gu bezain onak direla ikasi dut. Hainbati liburuak ere utzi dizkiet. Saregunea sortu aurretik, nik ez nuen inolako harremanik atzerritarrekin, lanean aritzen nintzelako, eta lanetik, etxera, familiarengana. Orduan ez nuen jende askorekin harremana.

Zenbaitetan, beharrezkoa da Sareguneko prestakuntza-ikastaroren batean parte hartu nahi duten pertsonak hobeto jakitea hizkuntza. Ildo horretan, zera azaldu digu Kultura Herrikoien eta Helduen Sustapenerako Arabako Zentroak:

**KULTURA HERRIKOIEN ETA HEDUEN SUSTAPENERAKO ARABAKO ZENTROA**

Zaramagako eskola-proiektutik jendea bideratzen hasi ginen, baina hizkuntza-jabekuntza oso apala zela ikusi genuen, eta erabaki behar izan genuen hautagaiak proposatzea trebeagoak zirenean hizkuntzarekin. Izan ere, hasieran joaten ziren talde batzuek nahiko oztopo handiak zituzten hizkuntzaren ondorioz.

Tokiko kultura-aniztasuna baliagarri izan daiteke ordenagailuak erabiltzea inoiz pentsatuko ez zuketean pertsonak informatikara hurbiltzeko.

**KALEKO HEZITZAILE BAT**

Proiektuaren kultura-aniztasuna iruditzen zait interesgarria. Hirigune batean bizi ez den Marokoko emakume bat nolatan joango da, bada, ordenagailuak erabiltzen ikastera, ez badu batere interesik, ez bazaio iruditzen baliagarria... eta arrotz bat ikusten badu! Baina, ezagunen bat ikusten badu, kode kultural, janzki eta ohitura berdinak dituen, baliteke egoera ezberdina izatea eta interesa piztea.

Batzuetan, hainbat herrialdetako eta kultura-inguruetako pertsonak elkarrekin lan egiteak elkar hobeto ezagutzeko eta ulertzeko balio du, atzerritarrei eta beste etnia batzuei eta haien ohitura kulturaleri buruzko aurreiritzi eta mito ustelak desagertzen baitira.

#### HIRUDESING

Askotariko ikaskideak nituen. Nik, adibidez, ez nuen inoiz lan egin etorkinekin, eta immigrazioaren gaineko nire ikuspegia asko aldatu da: gauzak kanpotik ikusten ditugunean, alde batera sentitzen gara pixka bat. Nik ez nekien ezer musulmanez, adibidez, eta, ezagutu nituenetik, beste ikuspegi bat dut: badakit barau egiten dutela ramadana dela-eta edo ezin ginela leku jakin batera joan jatera txerria ematen zutelako...

Beste hainbatetan, hala nola prestakuntza- eta enplegu-programa batean parte hartu zuen auzotar gazte honen kasuan, aniztasuna ez da inolako berritasuna. Ildo horretan, oso adierazgarria da haren gogoeta.

#### PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU PROGRAMA BATEKO PARTE HARTZAILE BAT

Bada, denetarik zegoen, txo... Gehienak seme-alabak zituzten emakume langabeak ziren. Baziren beste pare bat arazoak izan zituztenak agiriekin: jito bat eta orain nire laguna den beste bat, Abdenour. Oraindik ere elkarrekin ibiltzen gara; egunero lotzen gara. Gutxi gorabehera, horrelakoak ginen: ezer finkoa bideratu ez genuen jendea, lanbide jakinik gabea. Kontua zen beste zerbait ikastea, besterik gabe [...]. Ni auzoan bizi nintzen, eta betidanik izan ditut lagun afrikar, arabiar... asko. Alde horretatik, ez zitzaidan aldaketa iruditu. Txikitari haiekin jolasten nintzen.

Agerikoa denez, Saregunearen funtsezko elementua da aniztasuna. Ahalegin berezia egiten dugu prozesuetan parte hartzen duten pertsonak inguruko kultura-aniztasunaren adierazle izan daitezen eta beren talde kulturalen arteko zubi-lana egin dezaten, teknologietara inolako traumarik gabe hurbilduz.

## 8.6. Hobetzeko ideiak

Gure proiektuak ezinbestekoa du jakitea zer hobetu daitekeen, eta, zuzenean jakiteko, erabiltzaileei zuzenean galdetzea da onena. Emandako erantzunak oso baliagarriak zaizkigu, eta kanpo-ikuspegi inpartzialagoa ematen digute, litekeena baita hainbat xehetasunek ihes egitea, zentroan egunero egiten dugun lana dela eta.

Instalazioak, prestakuntza-metodologia, etab. Dena hobetu daiteke, eta horretan ari gara buru-belarri. Uste berekoa da erabiltzaile hau, eta ideia hauek eman dizkigu:

### ERABILTZAILA BAT

Emango diguzu zerbitzua hobetzeko ideien bat?

Ikastaroak emateko erabiltzen duten pantaila eskasa da. Tira, ez da eskasa: oso eskasa da. Nekez ikusten da, ordenagailuen gaineko argiak itzali behar dituzte ikusteko, eta pantaila ikusita ere ezin dira bereizi hizkiak eta galdezka ibili behar dugu askotan, ea zer dioen.

Egun lantzen ari garen beste ildo bat prestakuntza-ikastaroen egutegia behar bezain garaiz osatzea da. Arabako Hiesaren kontrako Batzordearen ustez, oso baliagarria litzateke, erabiltzaileak behar bezain garaiz ohartaraz litzakeelako eta, hartara, erabiltzaileek beraiek diseina lezaketelako prestakuntzarako eta lanerako beren bidea.

### ARABAKO HIESAREN KONTRAKO BATZORDEA

Emango diguzu zerbitzua hobetzeko ideien bat?

Guri oso interesgarria izango litzaziguke egin nahi dituzuen ikastaroen egutegia hilabete pare bat lehenago izatea, eta jakitea zer eduki landuko dituzten ikastaroei, norentzat izango diren, etab. Izan ere, ezin dugu aurrez ikusi Langraitzen dagoen pertsona batek noiz lortuko duen hirugarren gradua edo baldintzapeko askatasuna, etab. Egutegia nahiko goiz badugu, berriz, denbora nahikoa izango dugu erabiltzaileak informatzeko eta haiek beren prestakuntza alde aurretik programatzeko [...]. Halaber, oso egokia izango litzateke, atzeritarren ikuspegitik batez ere, posta elektronikoari buruzko ikastaro laburrak antolatzea, unean uneko beharrei erantzuteko.

Azken batean, gure xedea da pertsonak teknologia berrien bitartez gizarteratzea, eta, alde horretatik, komenigarria litzateke Saregunean lan egiten duten pertsonak gehiago ikusaraztea gizartearen aurrean. Ildo horretan hitz egin du gurekin lan egin ohi duen Udaleko kaleko hezitzaile batek. Halaber, talde berriak erakartzeko lan gehiago egin beharra aldarrikatu du, eta, horretarako, are asteburuetan eta jaiegunetan irekitzea zentroa. Azkenik, prestakuntzarako tresna pedagogiko berriak erabiltzea eta irratian eta telebistan oinarritutako proiektuak sortzea proposatu digu.

#### KALEKO HEZITZAILE BAT

Lehen esan didazunez, hainbat gauza hobetu daitezke Saregunean. Sakonduko duzu pixka bat gai horretan?

Tira, lehenik eta behin, niri interesgarria irudituko litzaidake dinamizatzaileak ere ateratzea. Alegia, nire ustez, nahiko aldebakarrekoa da Saregunea: jendea joaten da. Bada ateratzen den jenderik? Bai, baina teknikari iraunkorrak... Prestakuntza- eta enplegu-programak zain dituzte, ordea. Adibidez, hainbat lekutara joan daitezke Saregunea eta egiten ari direna aurkeztera. Jakin badakit baten bat gonbidatu egin dutela –badakit barne-borroka bat izan dela–, baina ez duela egin... Nire ustez, aprobetxatu egin behar da ahalmen hori. Argi dut prozesu luzea dela eta giza faktorearen mendean dagoela neurri handi batean eta, hortaz, urtero aldatzen dela. Halaber, argi dut, hainbat halako egoeran daudela, nahikoa dutela joatearekin eta egin beharrekoa egitearekin, ezin diegula hau eskatu.

Talde gehiago erakarri beharko lirateke. Horretarako, asteburuetan, jaiegunetan eta abarretan ireki beharko litzateke zentroa. Ez naiz esaten ari prestakuntza- eta enplegu-programetako kideek egin beharko luketela, edo kontratuaren baldintzak aldatu beharko liratekeela edo... Are gehiago, inork eskatzen badu, hitzarmena egin daiteke. Ez naiz esaten ari ezintasuna Saregunearen errua dela, baidarik eta ez garela hori egiten hasi.

Bestalde, hezkuntzarako baliabideen artean bideojokoak ditugu. Batetik, jokoek kontsumo arduratsua landu daiteke, eta, bestetik, haien hezigarritasuna. Ez naiz esaten ari *Empire dena delakoan* jokatu behar dugula historia ikasteko; aitzitik, elkarlanean jarduteaz ari naiz, kultura-gutxiengoak eta komunitate hartzaileak harremanetan jartzeaz, beste erabiltzaile mota batzuk erakartzeaz...

Interesgarria litzateke irratian eta telebista-gaiak ere lantzea.



Zentroko ordenagailuak nork bere kabuz erabiltzeko ordutegia laburtu izanak harrera ona izan du oro har: aurrerapauso esanguratsutzat eta proiektua aurrera eramateko dugun denbora eta lekua hobeto erabiltzeko apustutzat dute.

#### PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGU PROGRAMA BATEKO PARTE HARTZAILE BAT

Emango diguzu Sareguneak ematen duen zerbitzua hobetzeko ideien bat?

Ahaztu egin zait honezkero, aspaldi ez dut gaiaren berri... baina jakin badakit ordenagailuen erabilera librea aldatu dela. Nolabait, lehen oso librea zen erabilera, eta jende guztiak Youtuben ematen zuen egun osoa. Azkenean, jendeak ikasi egin nahi zuen gehienbat. Normala da, ez badakizu mail bat bidaltzen, Internet erabiltzen... Nire ustez, jendeak eskertu egiten du hori. Nire ustez, ordenagailuen erabilera librea murriztea ekimen ona izan da. Ez dakit zer uste duten koordinatzaileek-eta, lan handiagoa baitakarkie horrek nire ustez. Kontuan izan beharra dago saguari heltzen ere ez dakien jendearekin daudela eta gainean egon behar dutela, eta, banan-banan-, bi orduz, nekatu egiten dira azkenerako.

Alabaina, zenbait erabiltzaile ez daude ados, eta ordenagailuak nork bere kabuz erabiltzen jarraitzeko beste aukera batzuk proposatu dituzte.

#### ERABILTZAILE BAT

Zera azaldu nahi nizun: orain ostiraletan bakarrik erabil ditzakegu ordenagailuak gure kabuz, baina, nire ustez, asteko beste egunetan ez dute behar bezainbat ustiatzen. Gainera, ziur nago badela ostiraletan joan ezin den jendea, beste egun batzuetan joan daitekeena, lehen bezala. Asteko beste egunetan, ikusten da ez dagoela guztiz beteta: Ikastaroetara sei, zazpi, zortzi... lagun joaten dira, eta gainerako ordenagailuak hutsik daude. Alegia, niri ez zait gustatzen denbora gal-tzea, eta uste dut aprobetxatu egin daitezkeela nolabait. Beharbada, bionboak jarritz, ordenagailuak beren kabuz erabiltzera eta ikastaroetara datozenak bereiz daitezke.

Azkenik, gure estaldurari eta erabiltzaileak hartzeko gure ahalmenari buruzko hainbat ekarpen bildu ditugu. Izan ere, leku aldetik mugatuta gaudela eta zentroa erabiltzeko eskari handia dagoela-eta, prestakuntza- eta enplegu-plan edo ikastaroren batean parte har dezaketen zenbait hautagaiek itxaron egin behar dute.

#### HIRUDESING

Emango diguzu Sareguneak ematen duen zerbitzua hobetzeko ideia bat? Nire ustez, handitu egin beharko dute, gaur egun txikia dela uste baitut.

#### KULTURA HERRIKOIEI ETA HELDUEN SUSTAPENERAKO ARABAKO ZENTROA

Erdi erabiltzailea naizen aldetik –PCEPI-ren ikastaroetan parte hartzen dutenak lagundu ohi ditut nik–, iruditzen zait erabiltzaileen kopurua izugarria dela, eta, ikusten dudanez, denborarekin, txiki geldituko da.

## 9. Ondorioak

Azken atalean, Saregunearen esperientzia osoaren laburpen orokor bat egingo dugu, eta hainbat gogoeta orokor egingo ditugu, ondorio gisara. Horretarako lan-dinamika izango da esperientziaren alderdi edo elementu nagusiak aukeratzea, arreta muinean jarriz betiere, hau da, esperientziak erakutsi digunetik ikasten ahaleginduz.

### 9.1. Zerbitzuaren hasiera

Hasiera batean, proiektua martxan jartzeko, ezinbestekoa da sortzen diren ezusteko guztiak konpontzeko adinako fidagarritasun teknikoa duen talde bat izatea, gauza ziurra baita ezustekoak sortuko direla. Alde horretatik, oso baliagarria izan daiteke instalazio osoa aldi batean probatzea hasieran, eta, horretarako, ahal dela, ez da izan behar presarik.

Era berean, adi egon behar da erabiltzaileek ekipamendua zertarako baliatzen duten jakiteko: zer programa erabiltzen dituzten, zer maila duten ordenagai-luak erabiltzen, etab. Eskarira egokitzen bagara, proiektuak berritzeko eta etengabe egokitzeko gaitasuna duela hartzen dute.

Proiektua ikusarazteko, oso ohikoa da hainbat erakunderen aurrean aurkeztea: bai erakunde publikoen aurrean, bai erakunde pribatuen aurrean. Alde horretatik, oso garrantzitsua iruditu zitzaigun, norekin ari ginen hizketan, azalpenak haren neurrira egokitzen jakitea, alderdi batzuk edo besteak nabarmentzea oso baliagarria baita entzuleengana heltzeko: guztiz ezberdina da, adibidez, Saregunearaz Gizarte Laneko eskola batean edo software librearen erabileraren aldeko talde baten barnean hitz egitea.

## 9.2. Lan-taldea

Beharrezkoa da esparru hauen arteko ezaugarriak dituzten langileek osatzen duten talde bat sortzea:

- **Teknikoak.** Teknologia berriekin lan egiteko, beharrezkoa da hainbat aplikazio informatiko erabiltzen jakitea, ezinezkoa baita teknologiaren aitzin-aitzineko zerbitzu bat ematea haiek erabili gabe.
- **Gizarte-lanaren esparrukoak.** Horrelako proiektu batean lan egiten duten pertsonak haren helburuekin (hala nola kultura artean, auzotarren artean, elkarteen artean, hezkuntzan, harremanetan eta elkarlanean berdintasun-maila handiagoa lortzearekin) bat egitera bultzatzen dituen kontzientzia soziala izan behar dute.
- **Kudeatzeko gaitasuna.** Garrantzizkoa da proiektuaren eguneroko funtzionamendurako beharrezko egiteko guztiak (erabiltzaileekiko zuzeneko harre manarekin baino gehiago zentroaren barne-antolamenduarekin zerikusia dutenak) egiteko gai diren pertsonak izatea lan-taldean.
- **Malgutasuna.** Egokitzeko gaitasuna izan behar dute lan-taldeko kideek, eta bai antolaketaren eta teknologiaren, bai pertsonetikiko lanaren esparruan sortzen diren aldaketak onartzeko prestasuna.
- **Proiektuan sinestea.** Beharrezkoa da Saregunearen antzeko proiektu batean menturatzen direnek uste izan dezaten litekeena dela erabiltzaileen bide pertsonala aldatzea eta uste izan dezaten proiektuak on egingo diela alde horretatik.
- **Lehentasunak finkatzeko gaitasuna.** Zer baliabide erabil daitezkeen (zer baliabide material erabil daitezkeen eta zenbat denbora dagoen) jakin beharra dago, baita norberarenetik kanpoko zer proiektutan parte har daitezkeen eta zeinetan ez. Ezetx esaten ikasi behar da, eta nork bere buruari errurik ez egotzi, lan-zama dela-eta, erronka guztietan ezin parte hartzeagatik eta haiei ezin erantzuteagatik.

## 9.3. Kanpo-harremanak

Hiru maila bereiz ditzakegu proiektuaren kanpo-harremanen artean:

- **Erakundeekikoak.** Erakundeen babesa lortzea ezinbestekoa da proiektua sostengatzeko eta, hortaz, garrantzi handia du erakundeengandik zer

baliabide lor daitezkeen dakiten eta erakundeen artean erraz moldatzen diren pertsonak izateak lan-taldean. baliabide lor daitezkeen dakiten eta erakundeen artean erraz moldatzen diren pertsonak izateak lan-taldean.

- **Elkarteekikoak.** Oso komenigarria da gizarte-lanaren esparruan nabarmenki aritzen diren eta teknologia berriak erabiltzeko joera duten edo horren alde dauden elkarteetan, gizarte-mugimenduetan eta plataformetan parte hartzea, lan-sareak sortzeko. Alde horretatik, ezinbestekoa da ohartzea pertsona batzuek eta besteek ez dutela maila berdina teknologia berriekiko lanean eta, hortaz, tresna informatikoen erabileraz jabetzeko erritmoa ezberdina dela.
- **Herritarrekikoak.** Proiektua oso ezaguna izan arren sareen, elkarten eta abarren artean, jauzi egin eta herritarrek areago ezagut eta onets dezaten lortu behar da, eta, horretarako, proiektua jendarteratzeko lan egin behar da. Alde horretatik, oso garrantzitsua da komunikabideak erabiltzea: komunikabideetan agertzeak proiektuaren izateko arrazoiak desitxuratzeko arriskua dakar, baina, aldi berean, askoz ere gehiago ikusarazten du.

#### 9.4. Teknologiaren erabilera

Gure gomendioa da software librea kontuan hartzea eta harekin bakarrik lan egitea. Aplikazioak doakoak izatea eta ezaguerez jabetzearen kontrako ikuspegia bat datoz teknologia berrien bitartez gizarteratzea lortu nahi duen proiektu batekin. Aldi berean, beharrezko eta ezinbestekoa da web 2.0 proiektua baliatzea aurrera egiteko eta aukera berriak erabiltzea edukiak lantzeko eta ekoizteko.

Izugarrizko erakarmena du teknologiak. Jakin badakigu halako teknofobia ere eragin dezakeela hainbatetan, nola funtzionatzen duen ez dakiten pertsonengan, baina aitzakia da, eta, haren erakarmen ikaragarria aprobetxatuz, proiektuaren erabiltzaile izan daitezkeenengana gehiago hurbiltzeko euskarria.

Erabiltzaileek ordenagailuak baliatzeko moduari dagokionez, gure ustez, hobe da erabilera itunduari ematea lehentasuna erabilera libreari ematea baino. Alde horretatik, erabilera itundutzat dugu bai zentroak, bai erabiltzaileek elkarrekiko konpromisoa hartzea teknologia modu jakin batean erabiltzeko, hala nola ikastaroetan parte hartzeko, blog bat editatzeko edo

argitaratzeko eta abarretarako. Kontua da teknologia sortzeko erabil dadin eta haren erabilera baliagarria izan dadin bultzatzea.

## 9.5. Prestakuntza eta enplegu-programak

Prestakuntza- eta enplegu-programetan parte har dezaketen pertsonak auke-ratzeko, gure gomendioa da auzoko biztanleria osoaren ordezkari izan daitez-en parte-hartzaileak, bai ikuspegi kulturaletik, bai generoaren ikuspegitik. Hartara, erreferente aritu daitezke nor bere ingurune hurbilean, eta teknolo-gia berrietara hurbiltzeko erakargarri izan daitezke. Gainera, benetako eta berezko kulturartekotasuna lortzen du proiektuak horrela, eta aurreiritziak, estereotipoak eta tabuak deuseztatzen laguntzen du horrek, bai zentroko lan-gileen artean, bai auzotarren artean.

Parte-hartzaileek aurrez izan behar dituzten gaitasunei dagokienez, beharrez-koa da gutxieneko gaitasun batzuk (hala nola gaztelania jakitea) izatea, baina, gogoia izanik eta ahalegina eginik, dena ikas daitekeela dugu oinarriztat. Ildo horretan, hasiera batean, tresna informatikoak erabiltzen ez jakiteak ez du zertan eragozpen bat izan prestakuntza- eta enplegu-programa batean parte hartzeko; aitzitik, ikasteko motibazio-iturria izan behar du.

Bestalde, garrantzitsua da nabarmentzea prestakuntza- eta enplegu-progra-metan parte hartzen duten pertsona guztiek lan-talde bat osatzen dutela eta nork bere aukeretan eta elkarrenetan fidatu behar dutela. Ezinbestekoa da taldea erorialdietan babestea, motibazioari eutsiz eta egiten duten lana alde onetik ikusaraziz. Gainera, oso baliagarria izan daiteke taldekide batzuen arte-an kidetasun pertsonala dela medio sortzen diren sinergiak aprobetxatzea, baina, horretarako, oreka lortu behar da babesia behar izatearen eta mendeko-tasunik ez sortzearen artearen. Izan ere, prestakuntza- eta enplegu-planen helburuetako bat da parte-hartzaileak lan-merkatu “normalizatuari” aurre egiteko prestatzea. Gehiegizko paternalismoak kalte egin diezaioke helburu hori lortzeari, baina.

## 9.6. Auzoa

Gizartearen unean uneko egoerara egokitu behar du proiektuak, aldatu eta egokitu egin behar du ingurunea aldatu ahala, egokitze gaitasuna izatea funtsezkoa baita proiektuak bizirik irauteko, lehentxeago azaldu dugunez. Era berean, tokian tokikoaren gaineko ikuspegi positiboa izateak eta auzoa-

ren alde onen kontzientzia hartzeak eta haiek nabarmentzeak giro ona eta etengabeko ekimenak sor daitezzen laguntzen dute.

### **9.7. Hizkuntza-normalizazioa**

Gure gomendioa da euskarak presentzia duina izan dezan proiektuan. Adibidez, orain arte, Sareguneak oso ikastaro gutxi eman ditu euskaraz, bi arrazoi direla medio: batetik, zer inguruetan lan egiten dugun eta zein den ingurune horretako egoera eta, bestetik, une jakin batetik aurrera prestakuntza- eta enplegu-programetako parte-hartzaileek ematea ikastaroak –haien euskalduntze-maila txikia da oro har–. Gainera, programazioa eta [www.saregune.net](http://www.saregune.net) guneko eduki gehienak gaztelaniaz daude. Alabaina, gure helburua da, pixkanaka-pixkanaka, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak berez erabil daitezzen eguneroko lanean.

### **9.8. Lokala eta kanpo-itxura**

Komeni da lokal handi eta argitsu bat izatea, garbitasuna ahal bezainbat zaintzea eta erabiltzen diren altzariek itxura ona izatea. Izan ere, itxura ona izatea da gure burua erabiltzaile bihur daitezkeen eta bisitan etortzen direnen aurrean agertzeko modua, eta hori da haiek ikusten duten lehenengo gauza. Auzotarrek ere askoz hobeto hartzen dute proiektua itxura ona badu, eta estereotipoen aurka borrokatzen laguntzen du horrek. Ildo horretan, ondo portatu, adeitsu izan eta jendetasunez jokatu beharra dago erabiltzaileekin.